

## **ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA**

Hasierako onespina dokumentua 2022.

**“1. MEMORIA” dokumentua.**

**“1.4. GENERO-ERAGINAREN EBALUAZIOA”**

## **AURKIBIDE OROKORRA**

### **“1. MEMORIA” dokumentua**

- 1.1. Hiri-antolamenduaren eta egikaritzearen justifikazio-memoria.
- 1.2. Gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasuna arautzen duten estandarrak betetzearen eta Plan Orokorra indarrean den lurralde plangintzara egokitzearen justifikazio memoria.**
- 1.3. Ingurumen azterketa estrategikoa.
- 1.4. Genero-eraginaren ebaluazioa.
- 1.5. Eragin linguistikoaren ebaluazioa.

### **“2. IRIGINTZA ARAUAK” dokumentua**

- 2.1. Hirigintza Arau Orokorrak.
- 2.2. Hirigintza-esparruetako hirigintza-arau partikularrak
- 2.3. Katalogoa.

### **“3. AZTERKETA EKONOMIKOA” dokumentua**

- 3.1. Bideragarritasun Ekonomikoaren Azterketa.
- 3.2. Jasangarritasun Ekonomikoaren Memoria.
- 3.3. Jarduketa-programa.

### **“4. PLANO OROKORRAK” dokumentua**

### **“5. EGIKARITZE-LABURPENA” dokumentua**

AURKIBIDEA

or.

I. Dokumentuaren helburua. ....	1
II. Ebaluazioa egiteko esparru orokorra.....	1
III.- Genero-ikuspegia Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean txertatzeko prozesua.....	1
IV.- Egungo egoeraren diagnostikoa genero-ikuspegitik. ....	5
V.- Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean genero-ikuspegia txertatzeari lotutako helburuak eta irizpideak. ....	14
VI.- Plan Orokorraren proposamenen ebaluazioa genero-ikuspegitik. ....	19

ERANSKINA:

Genero-ikuspegia Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean txertatzeko prozesuan landutako dokumentuak.

- 1.- Orioko emakumeen beharren diagnostikoa, 2019ko ekainekoa.
- 2.- Prozesuaren memoria.
- 3.- Plan Orokorrerako proposamenak.

## I. DOKUMENTUAREN HELBURUA.

Gai horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoa kontuan hartuta, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria ebaluatu egin behar da, generoaren arloan izan ditzakeen eraginaren ikuspegitik.

Ebaluazio hori II. epigrafean aipatutako esparru orokorrean egiten da.

Ebaluazioaren edukia dokumentu honetan bertan eta hurrengo III. epigrafean aipatutakoa da, epigrafe horretan bertan adierazitako baldintzetan eta irismenarekin.

## II. EBALUAZIOA EGITEKO ESPARRU OROKORRA.

Ebaluazioa esparru orokorrean egiten da, eta esparru hori, besteak beste, honako lege-xedapen hauetan jasotako aurreikuspenek osatzen dute:

- \* Estatuko Administrazioak sustatutakoak:
  - Emakumeen eta Gizonen Benetako berdintasunerako Legea, 2007ko martxoaren 22koa (3/2007 Legea).
  - Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina, 2015eko urriaren 30ekoa (7/2015 ELD) ("20.1.c" artikulua eta bar).
- \* Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatutakoak:
  - Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Legea, 2005eko otsailaren 18koa (4/2005 Legea), gerora 3/2012 eta 1/2022 legeek aldatua.
  - Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 40/2012 Ebazpenaren bidez onartutako jarraibideak.

## III.- GENERO-IKUSPEGIA HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN TXERTATZEKO PROZESUA.

Prozesu hori Orioko Udalak sustatu du, hirigintza-zerbitzuaren zuzendaritzapean. Testuinguru horretan sustatutako jarduerak (herritarren parte-hartzearekin lotutakoak barne) eta planteatutako iradokizunak eta proposamenak honako dokumentu hauetan jasotakoak dira:

- \* Orioko emakumeen beharren diagnostikoa, 2019ko ekainekoa.
- \* Prozesuaren memoria.
- \* Plan Orokorrerako proposamenak.

Dokumentu horiek guztiak dokumentu honekin batera doan I. eranskinean daude jasota. Plan Orokorrarekin lotura duten iradokizunak eta proposamenak biltzen dituzte, baieta Planaren zereginarekin eta esku hartzeko eta erabakitzeko eremuarekin zerikusirik ez duten beste batzuk ere.

Testuinguru horretan, hurrengo epigrafeetan Plan honetan proposamenak sartzeko irizpideen eta/edo moduaren berri ematen da. Proposamen horiek Planaren esku hartzeko eremuaren barruan egonik, Planean jasoko dira.

Era berean, dokumentu horietako gainerako proposamenek (hurrengo epigrafeetan aipatu ez direnak) ez dute zerikusirik Plan honen esku-hartze eta erabakitze esparruarekin, eta, horregatik, Planetik eta dokumentu honen xede den ebaluaziotik kanpo daude.

#### IV.- EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA GENERO-IKUSPEGITIK.

##### 1.- Sarrera.

Diagnostiko hori *Orioko emakumeen beharren diagnostikoa* izeneko dokumentuan azaldutakoa da, dokumentu honi erantsitako I.1 eranskinean jasoa. Hori dela eta, bertan azaldutakoari lotzen gataizkio, egungo egoeraren diagnostikoa azaltzeari eta ezagutzeari dagokienez.

Nolanahi ere, aurrekoari gehitu behar zaio dokumentu horren diagnostikoa III. epigrafean aipatutako prozesuan (testuinguru horretan egindako inkesta barne; 285 emakumek erantzun dute) parte hartu duten emakumeetan oinarritzen dela nagusiki, Orioko emakumeen kolektibo osora zabaldu gabe.

Hori dela eta, beste dokumentu horretan jasotako informazioari hurrengo koadroetan azaldutakoa gehitu behar zaio.

#### 1. KOADROA. BIZTANLERIAREN BILAKAERA. EGUNGO EGOERA. ADINA ETA SEXUA.

SEXUA	ADINA	URTEA					
		2010		2015		2021	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumeak	0 – 19	510	20,13	629	21,75	657	21,58
	20 – 64	1.601	63,21	1.763	60,96	1.839	60,41
	>= 65	422	16,66	500	17,29	548	18,00
	Guztira	2.533	100,00	2.892	100,00	3.044	100,00
Gizonak	0 – 19	547	20,96	684	23,10	707	23,08
	20 – 64	1.704	65,29	1.842	62,21	1.853	60,50
	>= 65	359	13,75	435	14,69	503	16,42
	Guztira	2.610	100,00	2.961	100,00	3.063	100,00
Guztira	0 – 19	1.057	20,55	1.313	22,43	1.364	22,34
	20 – 64	3.305	64,26	3.605	61,59	3.692	60,46
	>= 65	781	15,19	935	15,97	1.051	17,21
	Guztira	5.143	100,00	5.853	100,00	6.107	100,00
<b>Emakumeak Guztira</b>	---	<b>2.533</b>	<b>49,25</b>	<b>2.892</b>	<b>49,41</b>	<b>3.044</b>	<b>49,84</b>
<b>Gizonak Guztira</b>	---	<b>2.610</b>	<b>50,75</b>	<b>2.961</b>	<b>50,59</b>	<b>3.063</b>	<b>50,16</b>
<b>GUZTIRA</b>	---	<b>5.143</b>	<b>100,00</b>	<b>5.853</b>	<b>100,00</b>	<b>6.107</b>	<b>100,00</b>

Koadroko datuak lortzeko iturria: EUSTAT.

#### 2. KOADROA. BIZTANLERIA MIGRAZIOAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2021).

BIZTANLERIAREN TIPOLOGIA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Sedentarioa	1.343	1.480	2.823
Barruko migratzaileak	450	403	853
Etorkinak	1.251	1.180	2.431
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.044</b>	<b>3.063</b>	<b>6.107</b>

Iturria: EUSTAT.

**3. KOADROA.**  
**BIZTANLERIA JAIOTERRIAREN ETA ALDIAREN ARABERA (%).**

JAIOTERRIA	2010	2015	2021
Araba	% 0,35	% 0,46	% 0,54
Bizkaia	% 1,11	% 1,66	% 1,82
Gipuzkoa	% 82,44	% 80,03	% 78,50
EAE guztira	% 83,90	% 82,15	% 80,86
Beste probintzia batzuk	% 9,02	% 8,73	% 8,09
Atzerria	% 7,08	% 9,12	% 11,05
<b>GUZTIRA</b>	<b>% 100,00</b>	<b>% 100,00</b>	<b>% 100,00</b>

Iturria: EUSTAT.

**4. KOADROA.**  
**JARDUERA-, JARDUERARIK EZAKO ETA LANGABEZIA-TASAK, SEXUAREN ETA ALDIEN ARABERA (%).**

BIZTANLERIAREN EGOERA.	SEXUA	2010	2015	2020
Biztanleria aktiboa	Emakumeak	% 45,60	% 49,60	% 50,00
	Gizonak	% 53,50	% 54,60	% 53,10
	Guztira	% 49,60	% 52,10	% 51,60
Biztanleria ez-aktiboa	Emakumeak	% 29,00	% 18,0	% 18,00
	Gizonak	% 23,00	% 11,00	% 18,00
	Guztira	% 52,00	% 29,00	% 36,00
Biztanleria landuna	Emakumeak	% 51,20	% 52,30	% 54,40
	Gizonak	% 59,00	% 56,00	% 59,70
	Guztira	% 55,10	% 54,1	% 57,00
Biztanleria langabea	Emakumeak	% 6,60	% 14,40	% 11,00
	Gizonak	% 9,20	% 17,20	% 9,20
	Guztira	% 8,00	% 15,90	% 10,10

Iturria: EUSTAT.

**5. KOADROA.**  
**UROLA-KOSTAKO 10 URTETIK GORAKO BIZTANLERIA, IKASKETA-MAILAREN,**  
**SEXUAREN ETA ALDIAREN ARABERA.**

EGOERA	SEXUA	2010		2015		2020	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Analfabetoak	Emakumeak	181	% 0,28	151	% 0,23	107	% 0,16
	Gizonak	107	% 0,17	85	% 0,13	67	% 0,10
	Guztira	288	% 0,45	236	% 0,35	174	% 0,25
Ikasketarik gabe	Emakumeak	869	% 1,36	753	% 1,13	645	% 0,94
	Gizonak	710	% 1,11	586	% 0,88	551	% 0,80
	Guztira	1.579	% 2,46	1.339	% 2,01	1.196	% 1,74
Lehen mailako ikasketak	Emakumeak	12.843	% 20,04	12.240	% 18,39	11.228	% 16,31
	Gizonak	12.378	% 19,31	11.700	% 17,58	10.513	% 15,27
	Guztira	25.221	% 39,35	23.940	% 35,97	21.741	% 31,58
Lanbide-heziketa	Emakumeak	3.914	% 6,11	4.675	% 7,02	5.503	% 7,99
	Gizonak	6.046	% 9,43	7.364	% 11,06	8.675	% 12,60
	Guztira	9.960	% 15,54	12.039	% 18,09	14.178	% 20,59
Bigarren mailako ikasketak	Emakumeak	6.546	% 10,21	6.667	% 10,02	6.811	% 9,89
	Gizonak	7.160	% 11,17	7.150	% 10,74	7.220	% 10,49
	Guztira	13.706	% 21,38	13.817	% 20,76	14.031	% 20,38
Erdi-/Goi-mailako ikasketak	Emakumeak	3.138	% 4,90	2.920	% 4,39	2.756	% 4,00
	Gizonak	2.087	% 3,26	1.810	% 2,72	1.657	% 2,41
	Guztira	5.225	% 8,15	4.730	% 7,11	4.413	% 6,41
Goi-mailako ikasketak	Emakumeak	4.476	% 6,98	5.867	% 8,82	7.502	% 10,90
	Gizonak	3.644	% 5,68	4.589	% 6,89	5.612	% 8,15
	Guztira	8.120	% 12,67	10.456	% 15,71	13.114	% 19,05
GUZTIRA	Emakumeak	31.967	% 49,87	33.273	% 49,99	34.552	% 50,19
	Gizonak	32.132	% 50,13	33.284	% 50,01	34.295	% 49,81
	Guztira	64.099	% 100,00	66.557	% 100,00	68.847	% 100,00

Iturria: EUSTAT.

Zutabeetako ehunekoak, kasu guztietan, erreferentziatzko urteko biztanleriaren % 100arekin daude lotuta.

**6. KOADROA.**  
**BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA, SEXUAREN ETA ALDIAREN ARABERA.**

ERRENTA-MOTA	SEXUA	2009	2015	2019
Errenta guztira	Emakumeak	13.675	15.414	18.246
	Gizonak	25.060	26.584	29.529
	Guztira	19.420	21.048	23.878
Lan-errenta	Emakumeak	8.775	9.776	12.177
	Gizonak	16.052	16.636	19.040
	Guztira	12.447	13.236	15.603

Iturria: EUSTAT.

**7. KOADROA.  
AMATASUNAGATIKO PRESTAZIOAK ETA ESZEDENTZIAK SEXUAREN ARABERA. GIPUZKOA.**

PRESTAZIO EDO ESKU-HARTZE MOTA	URTEA								
	2008			2014			2018		
	Prestazio / Esku-hartze kop.	Emakumeek ateratako onura / burututakoa (%)	Gizonek ateratako onura / burututakoa (%)	Prestazio / Esku-hartze kop.	Emakumeek ateratako onura / burututakoa (%)	Gizonek ateratako onura / burututakoa (%)	Prestazio / Esku-hartze kop.	Emakumeek ateratako onura / burututakoa (%)	Gizonek ateratako onura / burututakoa (%)
Amatasunagatiko prestazioak	18.058	% 96,26	% 3,74	15.345	% 95,5	% 4,5	12.713	% 95,2	% 4,8
Seme-alabak zaintzeko eszedentzia	2.554	% 95	% 5	3.435	% 95,3	% 4,7	4.815	% 90,7	% 9,3
Familiartekoak zaintzeko eszedentzia	167	% 85	% 15	354	% 82,2	% 17,8	535	% 82,1	% 17,9

Iturria: Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko ZIFREI buruzko txostenak, EMAKUNDEK landuak, hurrenez hurren, 2010 (2008), 2015 (2014) eta 2019 (2018) urteetan.

**8. KOADROA.  
DENBORAREN ERABILERA. ETXEKO LANETARA EGUNERO BIDERATUTAKO ORDUAK, SEXUAREN ARABERA. EAE.**

JARDUERA-MOTA	EGUNEKO ORDUAK			
	Emakumeak		Gizonak	
	2013	2018	2013	2018
Etxeko lanak	2,2	2,1	1,4	1,4
Seme-alaben zainketa	4,9	4,7	3,1	3,3
Mendeko pertsonen zainketa	2,3	2,4	1,5	1,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,4</b>	<b>9,2</b>	<b>6,0</b>	<b>6,1</b>

Iturria: Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko ZIFREI buruzko txostenak, EMAKUNDEK landuak, hurrenez hurren, 2010 (2008), 2015 (2013) eta 2019 (2018) urteetan.



**9. KOADROA.**  
**GARRAIATZEKO MODUA, SEXUAREN ARABERA. EAE (2016).**

GARRAIO-MODUA	EMAKUMEAK		GIZONAK		EAE GUZTIRA	
	Bidaia-kop.	%	Bidaia-kop.	%	Bidaia-kop.	%
Ez-motorizatua (oinez, bizikleta)	1.790.628	53,42	1.511.883	45,08	3.302.511	49,25
Automobila	945.679	28,21	1.415.395	42,20	2.361.075	35,21
Aukerako autobusa	47.939	1,43	51.771	1,54	99.710	1,49
Errepide bidezko garraio publikoa (hiri barruko eta hiriarteko autobusa)	276.579	8,25	128.231	3,82	404.811	6,04
Trenbidea (topoa eta besterik)	239.103	7,13	147.550	4,40	386.654	5,77
Motoa	10.121	0,30	69.370	2,07	79.491	1,19
Multimodala	34.658	1,03	24.759	0,74	59.417	0,89
Beste batzuk	7.355	0,22	4.841	0,14	12.196	0,18
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.352.062</b>	<b>100,00</b>	<b>3.353.800</b>	<b>100,00</b>	<b>6.705.865</b>	<b>100,00</b>

Oharra: garraiobide multimodalen eta beste batzuen barnean sartzen dira ordainpeko igogailuak, funikularrak, zubi esekia eta abar.

**10. KOADROA.**  
**MUGIKORTASUN JASANGARRI BIDEZKO JOAN-ETORRIAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. EAE (2016).**

JOAN-ETORRI KOP. GARRAIO-MODUA	7 – 19 URTE		20 – 44 URTE		45 – 64 URTE		65 URTEKOAK ETA HORTIK GORAKOAK	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Joan-etorri kopurua guztira	415.975	445.957	1.157.904	1.179.376	1.121.886	1.120.178	656.298	608.290
Joan-etorriak oinez (%)	% 57,1	% 58,1	% 40,7	% 27,2	% 50,2	% 36,4	% 71,7	% 69,7
Joan-etorriak bizikletaz (%)	% 2,2	% 4,3	% 1,8	% 4,5	% 1,5	% 2,3	% 0,2	% 0,3
Joan-etorriak hiri barruko eta hiriarteko autobusez	% 7,1	% 5,7	% 9,0	% 4,0	% 8,2	% 2,7	% 7,7	% 4,1
Joan-etorriak metroz	% 3,3	% 0,9	% 7,0	% 4,0	% 5,0	% 3,0	% 2,7	% 2,1
Joan-etorriak beste trenbide-mota batzuek	% 2,1	% 2,0	% 2,2	% 1,9	% 2,5	% 1,4	% 1,1	% 0,6

**11. TAULA**  
**JOAN-ETORRIEN ARRAZOIA, SEXUAREN ARABERA. EAE (2016).**

JOAN-ETORRIEN ARRAZOIA	EMAKUMEAK (%)	GIZONAK (%)
Lana	26,0	34,6
Ikasketak	13,3	13,7
Kudeaketa pertsonalak	7,8	7,2
Etxeko kudeaketak	1,0	0,8
Kudeaketa medikoak	3,3	2,7
Lagun egitea - Laguntza	11,1	6,4
Erosketa pertsonalak	1,1	0,8
Etxeko erosketak	11,6	5,5
Aisia	24,6	28,1
Beste batzuk	0,1	0,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,00</b>	<b>100,00</b>

**12. KOADROA.**  
**JOAN-ETORRIAREN LURRALDE-EREMUA, SEXUAREN ARABERA. EAE (2016).**

JOAN-ETORRIAREN LURRALDE-EREMUA	EMAKUMEAK (%)	GIZONAK (%)
Udalerrri barrukoa	71,8	63,5
Eskualde barrukoa	18,1	22,8
Lurralde barrukoa	6,9	8,8
Lurralde artekoa	2,2	3,3
Kanpora	1,0	1,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,00</b>	<b>100,00</b>

**13. KOADROA.**  
**DESPLAZAMENDU-KOPURUAREN ETA MUGITZEKO MODUEN BILAKAERA. EAE (2016).**

GARRAIO-MODUA	JOAN-ETORRI KOPURUA		JOAN-ETORRIEN ALDAKUNTZA (%)
	2011	2016	
Oinez	2.777.979	3.155.054	13,6
Bizikletaz	116.938	147.456	26,1
<b>Ez-motorizatuz</b>	<b>2.894.917</b>	<b>3.302.511</b>	<b>14,1</b>
Gidaridun autoz	1.861.002	1.914.742	2,9
Autoz, bidaiari gisa	350.379	438.627	25,2
Taxia	8.285	7.705	- 7,0
<b>Automobila</b>	<b>2.219.667</b>	<b>2.361.075</b>	<b>6,4</b>
Motoa	58.255	79.491	36,5
Hiri barruko autobusa	235.431	240.871	2,3
Hiriarteko autobusa	139.407	163.940	17,6
Aukerako autobusa	147.804	99.710	- 32,5
<b>Autobusa</b>	<b>522.642</b>	<b>504.521</b>	<b>- 3,5</b>
Topoa	273.898	266.247	- 2,8
Euskotren	40.558	43.325	6,8
Renfe	56.938	41.970	- 26,3
Renfe métrica (FEVE)	2.900	2.796	- 3,6
Tranbia	29.972	32.315	7,8
<b>Trenbidea</b>	<b>404.266</b>	<b>386.654</b>	<b>- 4,4</b>
Hegazkina	3.316	1.187	- 64,2
Multimodala	75.507	59.417	- 21,3
Beste batzuk	22.003	11.009	- 50,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.200.572</b>	<b>6.705.864</b>	<b>8,1</b>

## 2.- Hainbat ondorio

Aztertutako informazioak bide ematen du honako kontu hauek nabarmentzeko:

A.- Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ebaluazioa genero-ikuspegitik egiteko, informazioa, datuak eta estatistikak behar bezala bereizita, koordinatuta eta eguneratuta eduki behar dira. Horren aurrean, lortutako eta aztertutako informazioa:

- \* Hainbat iturritan du jatorria, eta, batzuetan, hainbat parametro eta premisa erabiltzen dituzte, informazio hori irakurtzea eta batera kontuan hartzea zailtzen dutenak.
- \* Batzuetan, ez dago gaien, sexuaren eta bestelakoen arabera bereizita zehaztasun eta bereizketa maila egokiarekin.
- \* Batzuetan, hainbat lurralde-eremu eta denbora-tarte azpimarratzen ditu, eta horrek ere zaildu egiten du azterketa orokor bat egitea.
- \* Arreta handiagoa behar duten gaien adibide soil gisa (dagozkion hobekuntzekin osatuta), honako hauek aipa daitezke:
  - Mugikortasuna, eta horren barruan: pertsonen erabiltzen dituzten mugikortasun moduak; joan-etorrien arrazoiak; eta abar.
  - Erantzunkidetasuna, ugalketa-lana, etxeko lanetan emandako ordu-kopurua eta abar.

Eta hori guztia, datuak sexuaren arabera behar bezala bereizita eta Orioren errealitatera egokituta.

Errealitate horrek justifikatzen du informazio zorrotza, etengabe eguneratua eta behar bezala bereizita eta koordinatua izateko beharra azpimarratzea.

B.- Emakumeak Orioko biztanleriaren % 50 dira, gutxi gorabehera.

C.- Emakumeek jarraitzen dute, nagusiki, etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten.

Zehazki, EAEko datuak erreferente hartuta, gizonak, 2018. urtean, etxeko jardueretan emandako eguneko ordu-kopurua emakumeen % 66,30en baliokidea izan zen.

Horren ondorioz, emakumeak dira etxeko jarduera horiei lotutako zerbitzuen, ekipamenduen eta gainerako hiri-horniduren erabiltzaile nagusiak, eta, zehatzago, honako hauei lotuta: etxeko erosketak (merkataritza); seme-alabak zaintzea (eskola-, kirol-, kultura-, jolas-, aisialdi- eta osasun-jarduerak, besteak beste); mendeko pertsonak zaintzea (adinekoen egoitzak; jolas- eta aisialdi-jarduerak, osasun-jarduerak eta abar).

Era berean, emakumeak dira bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren erabiltzaile nagusiak, garrantzi eta protagonismo berezia duten espazioak baitira aipatutako etxeko lanak eta zaintza-lanak egiteko.

D.- Emakumeak, nagusiki, garraio ez-motorizatuaren eta garraio publikoaren bidez mugitzen dira. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoaren datuak erreferentziatzat hartuta, esan beharra dago:

\* Emakumeen joan-etorri gehienak (% 68,8 EAEn) garraio bidez ez-motorizatuen eta garraio publikoaren bidez egiten dira. Gizonei dagokienez, ehuneko hori % 53,22koa da.

\* Emakumeen joan-etorrien % 28,5 eta gizonen % 44,30 motordun garraio pribatuaren bidez egiten dira (banakako autoa edo motoa).

E.- Halaber, EAEko datuak erreferentziatzat hartuta, emakumeen joan-etorrien ehuneko handi bat etxeko lanak edo ugalketa-lanak (% 27) eta produkzio-lanak (% 26) egiteari lotuta dago.

Era berean, gizonen kasuan, desplazamendu-mota horiek % 15,4 eta % 34,6 dira, hurrenez hurren.

F.- Emakumeen errenta ekonomiko pertsonala gizonena baino txikiagoa da.

Zehazki, 2019. urtean, emakumeen batez besteko lan-errenta gizonen errentaren % 64aren baliokidea zen.

Aldi berean, urte horretan berean emakumeen batez besteko errenta gizonen errentaren % 76aren baliokidea zen.

G.- Segurtasunik ezak edo segurtasunik ezaren pertzepzioak eta egoera horretatik eratorritako ondorioek askoz ere eragin handiagoa dute emakumeengan gizonengan baino.

## **V.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEARI LOTUTAKO HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK.**

### **1.- Sarrera. Orio; egungo egoera eta proposatutako hirigintza-garapenak. Ezaugarriak eta baldintzatzaileak.**

Gipuzkoako kostaldean dago Orio, Zarautz eta Usurbil artean. Udalerriak 993 ha inguruko azalera du, eta 71 ha inguruko hiri-ingurune (hiri-lurzoru) oso finkatua, gaur egungo hiri-bilbeari dagokiona.

Bilbe materialki jarraitua da, hainbat salbuespenekin; Mutiozabal, Añibarko Portua, Ortaika eta Botaleku, kasurako. Halaber, laua da, hainbat salbuespenekin; Hirigune Historikokoa eta horren ingurua, kasurako.

Barruko zein kanpoko konexioari dagokionez, Oriok bi parametro mota desberdin ditu.

Alde batetik, baldintza egokiak ditu, oro har, konexioa eta barne-mugikortasuna modu eroso eta irisgarrian egin ahal izateko, mugikortasun-modu jasangarriak erabiliz (oinez eta bizikletaz, batez ere). Hori guztia, Hirigune Historikoari eta inguruari buruzko salbuespenak alde batera utzi gabe, mugikortasun-baliabide mekanikoak (igogailuak eta abar) behar baitira (duela denbora bat gauzatze-prozesuan daude).

Bestetik, kanpo-konexioa garraio publikoan eta ibilgailu pribatuan oinarritzen da. Lehenari dagokionez, Orio Lurraldebusko hiriarteko autobus-sarearen barruan dago. Baita Euskotrenen trenbide-sarean ere. Sare horretako geltokia udalerraren ondoan dagoen Aia udalerrian egoteak ez dio protagonismoa kentzen garraio publiko horri, Oriorekin duen mugakidetasunari erreparatuta.

Testuinguru horretan, Plan Orokorrak Orioko hiri-bilbearen kalitatea indartzea aurreikusten du. Horretarako, hiri-garapen berriek, bizitegi-eskaerei, ekipamendukoei, espazio librekoiei, ekonomia-jarduerakoei eta bestelakoei erantzuteaz gain, behar duten bilbe horretako zatiak leheneratzea ekarri beharko dute, baita horien segurtasuna eta inklusibitatea handitzea ere, hurrengo ataletan azaltzen diren esku-hartzeko helburuetara eta irizpideetara egokituz. Baldintzatzaile orokor horiek guztiak behar bezala hartu behar dira kontuan ebaluazio honetan, Plan Orokorrean bertan hartzen diren bezalaxe.

Gainera, aurrekoari gehitu behar zaio Orioko udalerraren eta haren hiri-ingurunearen hirigintza-antolamendua plan eta proiektu multzo konplexu baten emaitza dela eta izango dela. Horien bidez, modu kateatu eta mailakatu batean, ezaugarri, eskala eta eragin berezietan proposamenak eta erabakiak zehaztu eta hartuko dira.

Horrela, Plan Orokor hori garatzeko, hirigintza-plangintza xehatua (plan bereziak...), urbanizazio- eta eraikigintzako ordenantzak, urbanizazio- eta birpartzelazio-proiektuak eta abar egin beharko dira, proposamenak gauzatzeko beharrezkoak.

Plan, proiektu eta antolamendu-eskalen aniztasun eta konplexutasun hori ere kontuan hartu behar da ebaluazio honetan. Hori dela eta, une honetan, arreta Plan Orokorraren egitekoan eta esku-hartze eremuan jarri behar da, eta zeregin horrekin zerikusirik ez duten eta beste plan eta proiektu batzuei dagozkien gaien ebaluazioa horien ebaluazio zehatzera bideratu behar da.

## 2.- Esku-hartzearen helburu orokorrak genero-ikuspegitik.

IV. epigrafeko 2. atalean azaldutako ondorioek justifikatu egiten dute, genero ikuspegitik, jarraian azalduko diren esku-hartze helburuak zehaztapena, Orioren berezitasunetatik eta baldintzatzaileetatik abiatuta aintzat hartuta:

### A.- Erabileren nahasketa.

Ekoizpen-, ugalketa- edo zaintza-lanekin lotura duten zereginen katea arrazoizko baldintza orekatuetan egiteak justifikatu egiten du hiri-ingurunea antolatzea eta eratzea. Ingurune horrek, ahalik eta gertuen, ugalketa-lanak egiteko beharrezkoak diren etxebizitzak, ekoizpen-lantokiak eta ekipamenduak eta zerbitzuak izango ditu.

Elementu horien artean zenbat eta distantzia handiagoa egon, orduan eta konplexuagoa eta zailagoa izango da eginkizun burutzea, eta are eta okerragoa izango da eginkizun horiek betetzen dituzten pertsonen bizi-kalitatea.

Ugalketa-lanak nagusiki beren gain hartuko dituzten pertsonak edozein izanda ere, aipatutako irizpideekin bat etorriko den hiri-ingurunea antolatzeak haien bizi-kalitatea hobetzea ekarriko du. Eta une honetan lan horiek gehienbat emakumeek egiten dituztenez, hiria antolatzeke modu horrek haien kalitatea hobetzen lagunduko du.

### B.- Bitarteko ez-motorizatuen (oinezko, funtsean) eta garraio publikoaren bidezko konexioa eta mugikortasuna.

Nagusiki ekoizpen- eta ugalketa-lanen katea betetzen duten pertsonak (emakumeek) garraibide ez-motorizatuak eta garraio publikoa erabiltzen dituzten heinean, hiri-ingurunea eta horretan aurreikusitako garapenak egoki eta zentzuz txertatu behar dira garraibide-mota horien sareetan.

Nolanahi ere, esandakoaren ildotik, kontuan hartu behar da Oriori eragiten dioten baldintzatzaileen aniztasuna; alde batetik, barne-konexioari eta -mugikortasunari dagokienez, eta, bestetik, kanpo-konexioari dagokienez.

Ikuspegi horretatik begiratuta, Plan Orokorreko proposamenek protagonismo handia dute edo izan dezakete joan-etorrietarako modu/garraio ez-motorizatuak (batez ere oinez eta bizikletaz) erabiltzea erraztuko duen hiri-ingurunea antolatzen.

Era berean, bere baldintzatzaile propioen ondorioz, Oriok kanpoaldearekin duen konexioa hobetzeak (adibidez, garraio publikoko zerbitzuak gehituz) Plan Orokorraren zeregina gaintzen du. Hori guztia, Orioko biztanleria-dentsitatea handitzeak ekar ditzakeen hobekuntzak alde batera utzi gabe.

C.- Hiri-ingurune lasaia, barea eta segurua antolatzea, eta, aldi berean, zerbitzu egokien hornitua.

Aipatutako zereginak eta, bereziki, ugalketa- edo zaintza-lanak aipatutako baldintzetan egiteak (horretarako, garraio ez-motorizatuak erabiltzearekin lotutakoak barne), mendekotasuna duten pertsonengan (haurrak, adinekoak, mugikortasun urria duten pertsonak) dituzten eraginekin batera, hiri-ingurune lasai, barea eta seguru bat antolatzea justifikatzen du, elementu oldarkorrenak edo distortsionatzaileenak hiri-ingurune horretatik bereiziz (iragateko bide-sareak...).

D.- Segurtasuna eta inklusibitatea.

Kontuan hartu beharreko beste helburuetako bat da hiri-ingurune seguru eta inklusibo bat antolatzea, baita haren pertzepzioaren ikuspegitik ere. Konplexutasun osoa kontuan hartuta, honako premisa hauei estuki lotutako helburua da:

- \* Ikusgarritasuna; ikusi ahal izatea eta ikusia izatea ahalbidetzen duen erreferentetzat hartuta.
- \* Jendartea; entzun ahal izateko eta entzuna izateko aukera ematen duen parametrotzat hartuta.
- \* Zaintza formala, eta laguntza jasotzea; sorospena lortzea edo ihes egitea erraztuko duen premisatzat hartuta.
- \* Seinaleztapena; norbera non dagoen eta norantz joan nahi den jakin ahal izateko parametrotzat hartuta.
- \* Lekuak planifikatzea eta mantentzea; giro garbi eta abegitsuan bizitzeko eta aurreko helburuak lortzeko beharrezko premisa gisa.
- \* Komunitatearen parte-hartzea; aurreko helburuak lortzeko beharrezkoa den erreferentea den aldetik, inplikazio eta erantzunkidetasun kolektibotik abiatuta.

E.- Hiri-ingurune trinkoa eta konpaktua, eta aldi berean fisikoki jarraitua.

Aurreko helburuen sinesgarritasuna eta bideragarritasuna lotuta daude, besteak beste, hiri-dentsitate edo -dimentsionamendu egokia duen hiri-ingurunearen antolamenduarekin (etxebizitza-kopurua, ekonomia-jarduerak...) eta hiri-garapen berriak ingurune horretan behar bezala txertatzearekin, hiri-bilbe jarraitu eta konektatua sortuz horrela.

Hiri-dentsitatea zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta zailagoa izango da esku-hartzearen gainerako helburuei eta ardatzei erantzutea, erabileren nahasketarekin eta zuzkidura eta zerbitzu egokien antolamenduarekin lotutakoak barne.

Hori bai, dentsitate eta trinkotasun horiek arautuko dituzten neurriak Orioko hiri-ezaugarrien eta -baldintzatzaileen arabera zehaztu behar dira.

F.- Etxebizitza eta hori genero-ikuspegira egokitzea.

Etxeko lanak eta zaintza-lanak baldintza egokietan egiteak justifikatu egiten du etxebizitza eta horren inguruko programa horretarako behar diren eskakizunetara egokitzea. Eta hori, zeregin horiek emakumeek edo gizonak egiten dituzten kontuan hartu gabe.

### 3.- Aurreko helburuekin lotura duten esku-hartze irizpideak.



Helburu orokor horiek lortzeko justifikatzen du (genero-ikuspegitik eta Plan Orokorrari dagokionez ere) jarraian azaltzen diren esku hartzeko irizpide orokorrak zehaztea, honako gai hauekin lotuta:

A.- Hirigintza-garapen orokorreko eredu bat zehaztea, eta, horren barruan, hiri-ingurunea zehaztea, adierazitako helburuekin bat etorriko dena. Helburu horiek, besteak beste, honako alderdi hauek justifikatuko dituzte:

- \* Hiri-ingurunearen kalitatea, segurtasuna eta inklusibitatea; horretarako, beharrezkotzat jotzen diren hiri-ingurune degradatuen hiri-berroneratzeko eta eraikinak birgaitzeko jarduketak sustatuko dira.
- \* Elkarren artean bateragarriak diren hainbat erabilera-motaren presentzia kualitatiboa eta kuantitatiboa (etxebizitzak, ekonomia-jarduerak, ekipamenduak, espazio libre fisikoak eta abar), bereziki bizitegitarako hiri-ingurunea dibertsifikatu eta aberaste aldera.
- \* Bizitegitarako hiri ingurunean bere ezaugarriekin eta baldintzatzaileekin bateraezinak diren erabilerak mugatzea edo debekatzea, erabilera horiek bertan ondorio kaltegarriak sortzen dituztelako (honako hauei loturik: sortzen duten trafikoa; jarduera osasungaitzak eta arriskutsuak ezartzea eta garatzea; eta behar bezala justifikatutako beste edozein arrazoi).
- \* Dentsitatea eta trinkotasun kualitatiboa eta kuantitatiboa, Orioko baldintzatzaileetara egokitua, eta, ahal den neurrian, hiri-bilbearen jarraitutasun fisikoarekin eta hirigintza berroneratzeko prozesuen jarraitutasunarekin osatua, hala behar duten bilbe horretako zatietara zabalduz.

B.- Hirigintza-tresnak erabiltzea (zonakatze globala eta xehatua, sailkapena eta abar) genero-ikuspegiarekin bat datozen helburuak eta irizpideak lortzea bultzatzeko, A atalean aipatutakoak barne.

Hirigintzako tresna horiek ez dira, inola ere, neutroak. Horiek era batera edo bestera erabiltzeak aipatutako helburuak lortzea sustatu edo kaltetu dezake.

Testuinguru horretan, hirigintza-zonakatze orokorra da Plan Orokorrak erabiltzen duen tresna ondoren aipatzen diren gai horietan esku hartzeko neurriak zehazteko: udal-lurraldea hainbat eremu globaletan banatzea, eremu horietako bakoitzean (etxebizitza, industria...) dagokion erabilerak duen protagonismoa kontuan hartuta; aurrekoak ez diren beste erabilera batzuk baimentzea edo debekatzea; aurreikusitako hirigintza-garapenen intentsitatea (eraikigarritasuna); eta abar.

Zonakatze globalak, genero-ikuspegitik begiratuta, eragin handiak ditu edo izan ditzake hirigintzako garapen-motak (bizitegiak, ekonomia-jarduerak...) antolatze irizpide

kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztean, erabilerak nahasteko helburuekin, hiri-dentsitatearekin eta bestelakoekin lotutakoak barne.

Erabiltzen den moduaren arabera, tresna egokia izan daiteke, besteak beste, hainbat erabilera-mota bereizteko edo nahasteko, baieta hiri-ingurune trinkoak eta konpaktuak, nahiz sakabanatuak sortzeko ere.

Aztertzen ari garen kasuan, genero-helburuak lortzeak justifikatu egiten du helburu horiekin bat etorritik erabiltzea.

B.- Zuzkidura eta zerbitzu egokiak antolatzea eta ezartzea.

Orioko hiri-inguruneak (bereziki bizitegi-eremuak), dagozkion ekipamenduak, espazio libreak eta hurbileko zerbitzuak (merkataritza barne) izan behar ditu.

Hori guztia, esku hartzeko gainerako helburuekin eta irizpideekin bat etorritik.

C.- Mugikortasun-sare egokiak antolatzea (oinezkoenak eta txirrindularienak bereziki) eta hirigintza-garapenak horietan txertatzea.

Hiri-garapen horiek garraibide jasangarrien sareetan (ez-motorizatuak eta, hala badagokio, garraio publikoa) integratuta egon behar dute, edo erraz sartzeko modukoak izan behar dute, udalerrri barruko konexioari eta mugikortasunari dagokienez.

Eta hiriarteko garraio publikoari dagokionez (autobusa eta Euskotren), komenigarria litzateke garraio-mota horren arintasuna sustatzea, eraginkorragoa izan dadin. Nolanahi ere, horrelako helburuak lortzeak Plan Orokorraren esku hartzeko eremua gainditzen du.

D.- Hiri-ingurunearen eta horren espazio publikoaren segurtasuna eta inklusibitatea.

Hiri-ingurune seguru eta inklusibo bat antolatzeak eta prestatzeak justifikatu egiten du jarraian azaltzen diren irizpideetara egokitzea, irizpide horiek modu berean aipatzen diren esku hartzeko eskala edo fase desberdinei lotuta:

- \* Hiri-ingurune sozial eta funtzionalki bizia eta dinamikoa sortzea, adierazitako trinkotasun-ereduari, erabileren nahasketari eta bestelakoei erantzuteko.
- \* Espazio publikoa eta eraikinak antolatzea, adierazitako helburuari erantzuteko; hau da, ikusteko eta ikusia izateko. Horretarako, honelako gaiei, besteak beste, behar bezalako arreta emango zaie: kale, ibilbide eta bestelakoak biziak eta ibiliak egokitzea, ikuspegi eta ikusmen-horizonte ireki eta argiekin; argiztapena; hiri-ikuspegitik zokoak, ezkutalekuak, ibilbideak edo espazio *hutsak* kentzea; eta lurzatietara eta bizitegi-eraikinetara eta horietan dauden etxebizitzetara sartzeko baldintzak zehaztea, aipatutako helburuarekin bat etorritik.

Nolanahi ere, irizpide horiek gauzatzea esku hartzeko eskala desberdinei lotuta dago. Hala, horietako batzuk hirigintza-antolamenduaren zehaztapenarekin daude lotuta.

Beste batzuk, berriz, urbanizazio-lanetarako proiektuen bidez espazio publikoan esku hartzearekin (argiztapena, hiri-altzariak, bestelako zerbitzuak ezartzea, haurrentzako jolas-espazioen ezaugarriak eta baldintzatzaileak eta abar).

- \* Hiri-garapen berriak antolatzea (hiria eraberritzeko eta berroneratzeko jarduketan ondoriozkoak barne), segurtasuna eta inklusibitatea bermatuko duten neurriak txertatuz antolaketan.
- \* Egungo puntu kritikoak pixkanaka ezabatzeko beharrezko neurriak zehaztea.

Helburu horiek lortzeko genero-ikuspegia plangintzan (Plan honetan eta hori garatzeko sustatu beharreko planetan) eta haren proposamenak gauzatzeko sustatu beharreko urbanizazio-obren proiektuetan txertatzea justifikatzen du. Horrela, adierazitakoaren ildotik, proiektu horietan kasu bakoitzean egokitzen diren neurriak zehaztu behar dira (bai ikuspegi orokorretatik, bai genero-ikuspegitik) argiztapenari, hiri-altzariei, beste zerbitzu mota batzuk ezartzeari, haurren jolas-espazioen ezaugarriari eta baldintzatzaileari eta, azken batean, hiri-ingurunearen eta horren espazio publikoaren kalitateari, segurtasunari eta inklusibitateari dagokienez.

E.- Bizitegi-eraikinak eta etxebizitza, eta horiek segurtasunari eta etxeko eta zaintzako lanak behar bezala egiteari lotutako eskakizunetara egokitzea.

EAEko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxiengo bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak erregulatzen dituen 2022ko ekainaren 28ko Dekretua nahitaez kontuan hartu beharreko erreferentzia da horri dagokienez.

## **VI.- PLAN OROKORRAREN PROPOSAMENEN EBALUAZIOA GENERO-IKUSPEGITIK.**

### **1.- Sarrera.**

Plan Orokorreko proposamenak genero-ikuspegitik ebaluatzeak ondoren aipatzen diren bi azterketa-agertoki horiek kontuan hartzea justifikatzen du:

- \* Proposamen horiek V. epigrafean azaldutako helburuetara eta irizpideetara egokitzea.
- \* Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (III. epigrafean aipatua) genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan planteatutako esku hartzeko neurrien tratamendua.

Hurrengo ataletan, planteatutako proposamenak eman dira ezagutzera, eta aipatutako bi agertoki horietatik ebaluatzen dira.

### **2.- Plan Orokorrearen proposamenak eta horien ebaluazioa, V. epigrafean azaldutako helburuen eta irizpideen ikuspegitik.**

Helburu eta irizpide horiekin lotutako proposamenak honako hauek dira:

A.- Hiri-bilbe ordenatua eta horren baldintzatzaile materialak, hedatzeari, dentsitateari eta trinkotasunari lotutakoak barne.

Proposatutako hiri-ereduak, funtsean, gaur egungo hiri-bilbean eragiten du. Horri dagokionez, salbuespen bakarrak dira "6.1 Erribera kalearen luzapena" azpieroemua eta "18. Aizperro" eremu planteatutako garapenei dagozkienak. Horiek bide-sarearen konfigurazioari azkena emateko (lehen kasuan) eta hiri-ingurunean bateraezinak diren ekonomia-jarduerak ezartzeko egungo eta etorkizuneko eskaerei erantzuteko (bigarren kasuan). Egia esan, Aizperroren garapena aurreikusita dago 2012ko HAPOan, eta Plan berriak sendotu egiten du.

Hiri-eredu horrek, besteak beste, hurrengo bi premisei erantzuten die. Alde batetik, gaur egungo hiri-bilbea sendotzea, zatirik handiengan. Bestetik, beste alde batzuk berroneratzea eta/edo birziklatzea, honako inplikazio eta helburu hauekin: antzemandako bizitegitarako hirigintza-eskaerei, ekonomia-jarduerakoei, zuzkidurakoei eta bestelakoei erantzutea; planteatutako hirigintza-garapenak aipatutako dentsitate, trinkotasun, erabilera nahasketa eta abarren helburuetara egokitzea; kasu bakoitzean, erabilera erregimen egokia zehaztea, egungoa finkatuz edo ordezkatzuz; zati horiei behar bezalako hiri kalitatea ematea; eta abar.

Eremu eta azpieroemua horietan planteatutako hirigintza-garapen berriak hiri berroneratzeko eta/edo birziklatzeko esku-hartze mota horien adibideak dira: Kofradia-Dikek osatutako lurralde-multzoa; Sotoak-Aita Lertxundi 48-50ek osatutako lurralde-multzoa; Eusko Gudari 36-38-40-42; Kaia kalea 5; Arocena Cerámica; Kabi-alay/Uri berri; Antilla; Añibarko Portua 37; eta abar.

Horrela, planteatutako hiri-ereduak V. epigrafeko 2. eta 3. ataletan azaldutako esku hartzeko helburuekin eta irizpideekin bat datozen premisei erantzuten die.

Hori bai, eredu hori arautzen duten proposamenak zehaztean eta gauzatzean, berriaz eta ezinbestean hartu dira kontuan egungo hiri-bilbearen konfigurazioaren ondoriozko baldintzatzaileak (lurzoruaren okupazioa; dimentsioa eta hedadura; bilbe horren zati bakoitzaren hiri-morfologia; eta abar), planteatutako garapen berriek eragindako kasuetan eta terminoetan doitzea alde batera utzi gabe.

B.- Zonakatze globala eta xehatua eta erabileren nahasketa arautzeko neurriak.

Plan Orokorrak proposatzen dituen zonakatze global eta xehatuko proposamenetan udalerraren hiri-ingurunea hurrengo taulan azaltzen diren zona-tipologietan eta xehakatueta sartze dira.

HIRI-EREMU GLOBALEN TIPOLOGIAK	HIRIKO AZPIEREMU XEHATUEN TIPOLOGIAK
A. Bizitegi-eremua.	a.1. Alde Zaharreko bizitegi-azpieroemua.
	a.2. Bizitegi komuna.
	a.3. Dentsitate baxuko bizitegi-azpieroemua.
B. Ekonomia-jardueretako eremua.	b.1 Industrialia
	b.2 Hirugarren sektorea
C.1. Bide-sarea (SO).	c.1.1. Bide-sarea
	c.1.2. Aparkalekua
C.2. Portu-eremua (SO).	c.2. Portuko azpieroemua

D.1. Hiriko espazio libreak (SO).	d.1. Hiriko espazio libreak (SO)
	d.2. Hiriko espazio libreak (SL).
	d.3. Azaleko urak (hiri-ingurunea)
E. Komunitate-ekipamendua (SO).	e. Komunitate-ekipamenduko lurzatia
F. Hiri-zerbitzuetako azpiegiturak (SG).	f. Hiri-zerbitzuetako azpiegiturak

Zonakatze-proposamen formal horiek eta hiri-inguruneke lurak zonakatze horietan sartzeko aurreikuspen materialak genero-ikuspegitik baloratzeak honako gogoeta hauek justifikatzen ditu:

- \* Eremu globalen zerrenda Orioko hiri-ingurunea behar bezala antolatzeko eta bertan planteatutako helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren gutxienekoetara mugatzen da.

Horrela, erabilera-nahasketaren helburua lortzeko honako hau justifikatzen du:

- Bizitegi-eremu globalak, berez, etxebizitzak edukitzeaz gain, etxebizitza horiekin bateragarriak diren beste erabilera batzuk izango ditu: ekonomia-jarduerak, espazio libreak, ekipamenduak, bide-sarea (hainbat motatakoak: oinezkoentzat, txirringarientzat eta ibilgailu motordunentzat).
- Ekonomia-jardueren eremu globalak (Aizperrora mugatua) izaera horretako erabilerak edukiko ditu (batez ere industrialak), bizitegitarako hiri-bilbearekin bateraezinak edo bertan sartzeko zailak direnak.
- Gainerako eremu globalak bat datoz Orioko sistema orokorren sareko zuzkidurekin, hiri-egiturari lotuak.  
Testuinguru horretan, esan behar da hiri-ingurunean dauden espazio libre orokorrak (SO) eta ekipamendu orokorrak (SO) udalerrriaren bizitegitarako hiri-bilbearen parte direla, haiek eta azken hori bateragarri egiteko baldintza egokietan.

Testuinguru horretan, Orioko hiri-bilbe gehiena bizitegi-eremu globalean sartzen da; aipatutakoaren ildotik, horretan erabilera-mota ugari ezar daitezke, etxebizitzaz gain. Are gehiago, haien ezaugarriak eta baldintzatzaileak kontuan hartuta, hiri-ingurunean dauden sistema orokorren sareko espazio libreak eta ekipamenduak udalerrriaren bizitegitarako hiri-bilbearen parte dira, haiek eta azken hori bateragarri egiteko baldintza egokietan, hiri-multzo harmoniko eta dibertsifikatua osatuz, bertan ezar daitezkeen erabilera eta jardueri dagokionez. Gainera, bide-sare orokorrak (SO) gehienbat zeharka eragiten dio hiri-multzo horri, eta multzo horren atarian geratzen da, salbu multzo horretatik igarotzen den N-634 errepideari dagokionez.

Horrela, eta aipatutako salbuespenak kontuan hartuta, zonakatze orokorreko proposameneke hiri-bilbearen erabileren nahasketa eta zuzkidura- eta zerbitzu-mota desberdinak egotea sustatzen duen hiri-emaitza bat sortzen dute, eta, aldi berean eta ahal den neurrian, errepide-sare orokorrari (SO) lotutako ibilgailu motordunen bide-zirkulazioaren ondoriozko eraginak urruntzen edo minimizatzen ditu, eta pertsonen zerbitzura egongo den hiri-bilbe lasai, bare eta seguru bat antolatzeko helburuekin bat etorriko diren mugikortasun-neurriak ezartzea ahalbidetzen du.

- \* Aurrekoarekin bat etorritik, bizitegi-eremu globalak azpiero xehatuak ditu, hainbat motatakoak: bizitegiak, hirugarren sektorekoak, ekipamenduak, espazio libreak, bide-sarea (oinekoentzako eta bizikletentzako ibilbideak barne), eta abar.
- \* Bizitegi-azpiero xehatu da (eta, horren barruan, "a.2. Bizitegi arrunta" tipologiako) Orioko hiri-ingurune ko protagonista edo presentzia handiena duena. Lurzati-tipologia horretarako ezarritako hirigintza-erregimenak ahalbidetzen du bertan, finkatutako baldintzetan, etxebizitzaz gain, beste erabilera-modalitate hauek ezartzea: hirugarren sektorekoak (merkataritzakoak; turismo-ostatuak; bulegoak; eta abar); ekipamenduak; etxebizitzekin bateragarriak diren industria-erabilerak; eta abar. Horrela, bizitegirako lurzati-mota horren erabilera-araubideak berak sustatzen du erabileren nahasketaren helburua lortzea.
- \* "VI.2. Beheko solairuetan erabilerak ezartzeko baldintza bereziak" izeneko planoan jasotako udalerriko zatietako bizitegi-erakinetako beheko solairuaren hirigintza-araubidea honako baldintza hauen arabera izango da:
  - Alde batetik, batez ere ekipamenduak, ekonomia-jarduerak (merkataritza...) eta abar ezartzeko erabiltzen dira, bi helburuekin: halako zuzkidurak eta zerbitzuak izateko, eta espazio publiko bat edo kale bizi eta dinamiko bat sortzeko, aldi berean segurua izango dena.
  - Bestetik, aparkalekuak eta etxebizitzak, besteak beste, debekatu egiten dira, horiek ezartzea aurreko helburuekin kontraesanean dagoen edo/eta bat ez datorren neurrian.

Horri buruz planteatutako proposamenak Hirigintza Arau Orokorretako artikuluko hauetan jasotakoak dira: 14-22 (biak barne), 65-73 (biak barne), eta abar.

Neurri horiek guztiek Orioko hiri-ingurunean erabileren nahasketa sustatzen laguntzen dute.

#### C.- Ekipamenduak eta hurbileko zerbitzuak.

Orioko hiri-inguruneak edo, hobeto esanda, haren hainbat zatik zuzkidurak eta zerbitzu egokiak dituzte (merkataritza, ostalaritza, ekipamenduak, espazio libreak...) horrelako eskaerei erantzuteko. Zuzkidura eta zerbitzu horiek bizitegitarako hiri-bilbean kokatuta daude, bertan dauden etxebizitzekiko hurbiltasun- eta gertutasun-baldintza egokietan.

Hiri-ingurunearen hedadura mugatuaren ondorioz (formari eta orografiari gehituta), zuzkidura eta zerbitzu horiek hiri-ingurune osoaren eskaerei erantzun diezaiekete, zati desberdinak zuzkidura eta zerbitzu horietatik gertuago edo urrunago egonda ere. Nolanahi ere, udalerraren hiri-ingurunearen distantzia mugatuak direla eta, ez dute arazorik sortzen zerbitzu horiek erabiltzeari dagokionez.

Plan Orokorrak zuzkidura- eta zerbitzu-mota horien presentzia sustatzen du, hiru neurri osagarriren bidez.

Batetik, lehendik daudenak finkatuz. Bestetik, planteatutako garapen berri gehienetan ezartzea aurreikusita; horri buruz planteatutako proposamenak garapen horien eraginpean dauden eremuetako Hirigintza Arau Partikularretan azaldutakoak dira. Azkenik, aurrealdea espazio publikoetara ("VI.2 Beheko solairuetan erabilerak ezartzeko baldintza partikularrak" izeneko planoan jasotakoak) ematen duten eraikinen beheko solairuak lehentasunez, besteak beste, ekipamenduetarako eta ekonomia-jardueretarako (merkataritza...) izango direla aurreikusiz. Baztertu egiten da aparkalekuak eta etxebizitzak ezartzea, baldin eta aparkaleku eta etxebizitza horiek ezartzea aurreko helburuei aurka egin edo/eta helburuekin bat ez badator.

#### D.- Mugikortasuna.

Azaldutakoaren arabera, Oriok hainbat baldintzatzaileri erantzuten die, kanpoko eta barneko konexioari/mugikortasunari dagokionez.

Kanpoko konexioa garraio publikoan (Lurraldebusseko hiriarteko autobus-sarea eta Euskotrenen tren-zerbitzua) eta ibilgailu pribatuan oinarritzen da. Azken hori murriztuko bada, zerbitzu publikoa areagotu beharko da. Helburu desiragarria da hori, bai generoari, bai jasangarritasunari erreparatuta. Nolanahi ere, helburu hori lortzea Plan Orokorren erabakitzeko eta esku hartzeko eremutik harago doa.

Aldi berean, baldintza egokiak ditu barne-konexioa eta -mugikortasuna modu erosoan eta irisgarrian egin ahal izateko, mugikortasun-modu jasangarriak erabiliz (oinez eta bizikletaz, batez ere). Hori guztia, hainbat salbuespen alde batera utzi gabe; besteak beste, Hirigune Historikoari eta inguruari dagozkionak. Testuinguru horretan, Plan Orokorrek honako neurriok proposatzen ditu:

- \* Bizitegitarako hiri-bilbea bide-sare orokorretik (SO) eta horri lotutako trafikotik kanpo uztea. Horri dagokionez, salbuespen bakarrak N-634 errepidearekin, AP-8 autobidearekin (udalerritik igarotzen diren tarteetan) eta Txankako bidearekin lotutakoak dira. Horrela, eta salbuespen horiekin, bide-sare orokor horretako trafikoari lotutako afekzio kaltegarriak (intentsitatea, zarata, agresibitatea eta abar) bizitegitako hiri-ingurunetik aldentzen dira, eta hiri-ingurunearen distentsioa eta lasaitasuna lortzen laguntzen dute.
- \* Oinezkoentzako eta bizikletentzako sarea (lehendik dagoena eta aurreikusita dagoena) hiri-bilbe osora hedatzen da, planteatutako hirigintza-garapen berrietara barne, eta nagusiki osatzen duen bizitegi- eta zuzkidura-multzoari (ekipamenduak eta espazio libreak) zerbitzua ematen dio.
- \* Barneko/tokiko bide-sarea (autoekin lotura duena) hiri-bilbe horretara bertara hedatzen da, eta zerbitzu-mota hori ematen die, gutxienez, bilbe horretan bizi direnei.

Nolanahi ere, bide-sare horren berriazko trafiko- eta erabilera-neurriak zehazteak Plan Orokor honen zeregina gainditzeko du, eta Udalaren ekimenez prestatzen ari den Mugikortasun Planaren testuinguruan heldu beharko zaio.

- \* Aparkalekuak arautzeko proposamenak, bereziki eta besteak beste, Hirigintza Arau Orokorren 87. artikuluan jasotakoak dira. Horietako batzuk dira:

- Aurreikusitako aparkalekua ondoren aipatzen direnak barne hartuko dituen ibilgailu-kontzeptu batekin lotzea: automobilak edo autoak, bizikletak, mugikortasun murriztua dutenentzako ibilgailuak.
- Plan honetan aurreikusitako bizitegitarako hirigintza-garapen berrietarako eta lehendik dauden eta finkatuta dauden bizitegi-eraikinak ordezkatzeko esku-hartzeetarako, 1,5 plaza/100 m<sup>2</sup>(s)-ko estandarra ezartzea.
- Hirugarren sektoreko eta industriako erabileretarako garapenetan, arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan aurreikusitako aparkaleku-estandarra aplikatzea.
- Aparkaleku-estandar hori ondoren aipatzen diren ibilgailu-modalitate horiekin lotzea, adierazten den proportzioan:
  - . Automobilak edo autoak: % 70.
  - . Bizikletak: % 30.

#### E.- Segurtasuna.

Hiri-ingurune eta espazio publiko segurua eta inklusiboa lortzea helburu konplexua da, eta hainbat plan- eta proiektu-motaren inguruan erabaki- eta jarduera-multzo bat eskatzen du, baita esku hartzeko eskala desberdinak ere.

Horrela, Plan Orokorrari dagokionez, horrelako erabakiak eta jarduerak, neurri handi batean, honako bi neurri-mota hauekin lotuta daude:

- \* Planteatutako hiri-garapeneko ereduari lotutakoak, trinkotasun eta dentsitate kualitatibo eta kuantitatiboko premisetan, erabileren nahasketan eta bestelakoetan oinarrituta, Orioko berariazko baldintzatzaileetara egokituta eta sozialki eta funtzionalki bizia eta dinamikoa izango den hiri-ingurunea sortzeko gaitasunarekin.

Izan ere, eredu hori da hiri-ingurune segurua eta inklusiboa sortzeko apusturik onena.

- \* Espazio publikoan sustatu beharreko urbanizazio-obren proiektuetan (Hirigintza Arau Orokorraren 135. artikuluan ezarritakoaren arabera), kasuan kasu, proiektu horietan genero-ikuspegia txertatzeko egokitutako jotzen diren neurriak zehazteko aurreikuspena, Udalak egokitutako jotzen duen kasuetan ikuspegi horretatik ebaluatzeari lotuta.

#### F.- Bizitegi-eraikinak eta etxebizitza.

Bizitegitarako eraikinak eta bertan dauden edo aurreikusten diren etxebizitzak EAEko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen 2022ko ekainaren 28ko Dekretuaren aurreikuspenetara egokitzea da, une honetan, Orioko etxebizitzak dagozkien genero-aurreikuspenetara egokitzeko bermerik handieneko neurria.

Dekretu horretan ezarritakoaren arabera, aurreikuspen horiek ondoren aipatzen diren horiekin lotutako bestelako gaitan: bizitegi-lurzatiatarako eta -eraikinetarako sarbideak, horien atariak barne; eraikin horien zirkulaziorako eta komunikaziorako espazio eta elementu komunak, eskailerak eta igogailuak barne; eta abar.



Testuinguru horretan, Hirigintza Arau Orokorretako 108., 109. eta 117. artikuluetan, besteak beste, aurreikusten da Orion lehendik dauden eta proiektatuta dauden etxebizitzak Dekretu horretan ezarritako baldintzetara egokitzea, artikulua honetan eta haietan adierazitako baldintzetan.

### **3.- Genero-ikuspegia Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean txertatzeko prozesuan planteatutako esku hartzeko neurriak eta horiek plan horretan duten tratamendua.**

Testuinguru horretan planteatutako neurri guztietatik une honetan arreta berezia merezi dute Plan Orokorreko Ordenantzetan sartzekoak diren proposamenek. Jarraian azaltzen diren gaiak azpimarratzen dituzte proposamen horiek, eta Plan honetan landuko dira, ondoren adierazten diren jarraibideen arabera:

#### **3.1.- Neurri orokorrak. Genero-ikuspegia HAPOan txertatzea.**

A.- *Espazioaren erabileran autonomia pertsonala bermatzea (bereziki, espazio publikoarenean).*

a) Neurrien edukia:

- \* Erasoekiko eta mehatxuekiko espazio seguruak diseinatzea.
- \* Arriskuetatik eta arazoetatik babestutako guneak diseinatzea, trafikotik, ekoizpen-jardueretatik eta jokoetatik, besteak beste, eratorritakoak barne.
- \* Dibertsitate fisikora, sentsorialera eta kognitibora egokitutako espazio irisgarriak antolatzea eta egokitzea.
- \* Garraio publikoan eta oinez eta bizikletan mugitzeko moduetan oinarritutako mugikortasun-sarea diseinatzea.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Aurreko 2. atalean azaldutakoaren arabera, Plan Orokorreko proposamenak bat datoz aipatutako neurriekin eta/edo horiek oinarri dituzten jarraibideekin.

Hori bai, neurri horiek bat datoz Plan Orokorrearen proposamen zehatzekin, baldin eta Plan Orokorrearen berezko hirigintza-antolamendua zehaztearekin zerikusia duten gaietan eragiten badute. Horrela, adierazitakoa kontuan hartuta, planteatutako hiri-eredua bat dator horiekin.

Beste kontu bat da horren inguruko berariazko neurri material zehatzak zehaztearekin zerikusia duena. Kontu hori Plan Orokorrearen zeregina gainditzen du, eta, urbanizazio-obren proiektuei, eraikuntza-proiektuei, udal-ordenantzei eta bestelakoei dagokie.

B.- *Baliabideen eskuragarritasuna bermatzea eta bultzatzea aniztasunaren, inklusibitatearen eta ekitatearen ikuspegitik.*

- a) Neurrien edukia:
- \* Etxebizitzarako eta ostatu hartzeko laguntzak.
  - \* Osasuna eta ongizatea sustatzen duten baliabideetarako sarbidea erraztea, ekipamenduetarako barne (kirola, kultura, hezkuntza, komunitatea eta abar).
  - \* Ordaindutako lanerako eta ekonomia-jardueretarako baliabidea/sarbidea erraztea.

- b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Oro har hartuta, Plan Orokorraren esku-hartze eremutik kanpoko neurriak dira.

C.- *Ugalketa-jarduerak eta -lanak egiten direla bermatzea eta erraztea.*

- a) Neurrien edukia
- \* Denboraren kudeaketa erraztea, zeregin pertsonaletarako, ekoizpen- eta ugalketa-lanetarako eta gizarte- eta politika-lanetarako denborak bateratuz eta/edo koordinatuz, eta horiek egiteko erantzunkidetasuna bultzatuz.
  - \* Espazioen funtzionaltasuna bultzatzea eta kontuan hartzea, etxebizitzarena barne, zaintza-lanak egitearen ikuspegitik, lan horiek gizarteratzea erraztuz.

- b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Hirigintza-antolamenduaren ikuspegitik, denboraren kudeaketarekin lotura duten neurriak zuzenean eta estuki lotuta daude hainbat parametrori erantzungo dieten hiri-eredua zehaztearekin. Parametro horiek dira: erabilera-nahasketa; hurbileko ekipamenduak eta zerbitzuak egotea (merkataritza eta abar); mugikortasun jasangarria (oinezkoentzako eta garraio publikoko sareen protagonismo bereziarekin); eta abar. Plan Orokorraren hirigintza-garapenerako eredua parametro horiekin bat datorrenez, adierazi behar da aipatutako neurriak erantsi zaizkiola.

Bestalde, etxebizitza zaintza-lanak egitearen ikuspegitik funtzionala, bizigarria eta abar izateari dagokienez, Plan Orokorrak erreferentzia gisa hartzen du 2022ko ekainaren 28ko Dekretua, EAEko etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak erregulatzen dituena. Horrek esan nahi du horri buruz planteatutako neurriak ere sartu direla Planean.

D.- *Emakumeen ordezkartza bultzatzea.*

- a) Neurrien edukia
- Emakumeen parte-hartzea eta ordezkartza erreala eta sinbolikoa sustatzea eta indartzea, eta ugalketa-lanak eta ugalketa-jarduera sozialak aitortzea.

- b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Plan Orokorraren esku-hartze eremutik kanpoko neurriak dira.

E.- *Herritarrek informazioa eta proposamenak ulertzen dituztela bermatzea eta erraztea, gardentasunaren aldeko konpromisoaren testuinguruan.*

- a) Neurrien edukia
- \* Informazioa argi, erraz eta ulertzeko moduan azaltzea.
  - \* Informazioa erraz eskuratzeko aukera ematea, herritar gehienentzat egokiak izango diren formatuak erabiliz.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Plan Orokorraren eta horren barruko proposamenen azalpen argi, erraz eta ulergarria plana egiteko premisen beraien parte da. Nolanahi ere, konplexua izanik, zaila edo ezinezkoa da Plan osora zabaltzea.

Era berean, herritar gehienentzat egokiak diren formatuak erabiliz informazioa erraz eskuratzeko aukera emango duten neurriak zehaztea Plan Orokorraren berezko zereginetik haratago dago.

F.- *Bizitegi-eraikinekin lotutako neurriak betetzen direla justifikatzea.*

Bizitegi-eraikinei buruz aurrerago adierazitakoari lotzen gatzaizkio (3.5 atala).

3.2.- Eremu publikoak eta berdeguneak.

3.2.1.- *Oinezkoentzako funtzionaltasuna eta segurtasuna hiri-pasealekuetan.*

A.- Segurtasun-neurriak. Argiztapen-sarea.

- a) Neurrien edukia
- \* Argiztapen-sareak espazioen eta ibilbideen segurtasuna sustatuko du.
  - \* Nahitaez igaro beharrekoak diren espazioak eta inguruneak (autobus-geltokirako, aparkalekuetarako, ekonomia-jardueretarako, etxebizitzetarako, eta bestelakoetarako sarbideak) lehentasunez zainduko dira, bereziki ingurune bakartuetan eta zirkulazio gutxiko inguruneetan badaude.
  - \* Diseinatzean eta ezartzean, mugikortasun-modu guztiak hartu behar dira kontuan.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Planteatutako neurrien eduki zehatza eta xehetasunezkoa Plan Orokorreko esku-hartze eta erabaki eremutik haratago doa, eta Urbanizazio Ordenantzei, urbanizazio obren proiektuei eta abarri dagokie.

B.- Segurtasun-neurriak. Trafikotik babestea (Mugikortasun Jasangarriko Planean sartu).

## a) Neurrien edukia

- \* Oinezkoen pasabideak: espaloien ondoko aparkalekuak dituzten kaleetan, espaloi horiek mugakideena den zirkulazio-galtzadaren izkinaraino edo mugaraino hedatuko dira, aparkatutako autoek ikuspina oztopa ez dezaten.
- \* Ahal den neurrian, kaleen arteko gurutzatze diagonalak edo unibertsala erraztuko da, bereziki kirol-, eskola-, kultura- eta merkataritza-ekipamendu eta instalazio garrantzitsuen edo erabilpen handikoen ondoan badaude. Horretarako, bidegurutzak eta pasabideak maila berean jartzea gomendatzen da (espaloiak barne) eta semaforoak antolatzea, pasabideen eta gurutzaguneen segurtasuna bermatzeko moduan.

## b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Planteatutako neurrien eduki zehatza eta xehetasunezkoa Plan Orokorreko esku-hartze eta erabaki eremutik haratago doa, eta Urbanizazio Ordenantzei, urbanizazio obren proiektuei eta abarri dagokie.

## C.- Funtzionalitate-neurriak: oinezkoen ibilbide guztietan atsedean hartzeko, hidratatzeko, garbitzeko eta aterpe hartzeko edo babesteko instalazioak eta ekipamenduak jartzea.

Planteatutako neurrien eduki zehatza eta xehetasunezkoa Plan Orokorreko esku-hartze eta erabaki eremutik haratago doa, eta Urbanizazio Ordenantzei, urbanizazio obren proiektuei eta abarri dagokie.

### 3.2.2.-Espazio libreen funtzionaltasun- eta segurtasun-neurriak (parkeak eta plazak).

## A.- Segurtasun-neurriak. Argiztapen-sarea.

## a) Neurrien edukia

- \* Argiztapen-sareak espazio publikoen eta ibilbideen segurtasuna sustatuko du.
- \* Lehenetasunez argiztatuko dira nahitaez igaro beharrekoak diren espazioak (sarbideak...) eta egonaldikoak.

## b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Plan Orokorrek udalerriko sistema orokorren eta tokiko sistemen sareetan txertaturik dauden hiri-espazio libreak antolatzen ditu. Era berean, tokiko sare hori osatuko da plangintza xehatu finkatuan antolatutako edo antolatuko diren espazio libreekin edo haren garapenean sustatu beharrekoekin.

Ikuspegi globaletik begiratuta, Oriok Plan Orokorrean txertatu den espazio libreen sare oso lekukotua eta finkatua du. Eta sare hori hainbat zatitan egokitu eta osatzen da, besteak beste, aurreikusitako hirigintza-garapen berriei lotutako espazio libre berrien bidez. Horrela, lehendik dagoen sarea pixkanaka egokitu eta inplementatuz doa.

Testuinguru horretan, proposatutako neurriek honako bi gogoeta-mota hauek justifikatzen dituzte.

Alde batetik, Plan Orokorrean arlo horretan esku hartzeko jarraibideak sartzeari buruzkoa. Zehazki, Planaren Hirigintza Arau Orokorren 135. artikuluan sartzen dira.

Bestetik, arlo horretan esku hartzeko neurri material zehatzak zehaztearekin lotutakoa. Zeregin hori Plan Orokorraren esku-hartze eta erabaki eremuaz haratago doa, eta Urbanizazio Ordenantzei, urbanizazio-obren proiektuei eta bestelakoei dagokie.

#### B.- Espazioen hierarkizazioa:

##### a) Neurrien edukia

Espazio bakoitzaren ekipamendu-maila aztertuko da, ekipamenduaren erabilerari eta hierarkiari erreparatuta, udalaz gaindiko, udaleko, auzoko edo hurbileko izaera duen edo zerbitzua den kontuan hartuta.

##### b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Azaldutakoaren arabera, Plan Orokorrak udalerriko sistema orokorren eta tokiko sistemen sarean txertaturik dauden hiri-espazio libreak antolatzen ditu. Era berean, tokiko sare hori osatuko da plangintza xehatu finkatuan antolatutako edo antolatuko diren espazio libreekin edo haren garapenean sustatu beharrekoekin.

Bi eskala horien eta erantzuten dien justifikazioen arteko diferentziazioa zuzenean eta berariaz lotuta dago hiriko espazio libreen hierarkizazio horrekin, haien baldintzatzaileak eta ematen duten zerbitzua kontuan hartuta.

#### C.- Funtzionalitate-neurriak. Adibidez:

##### a) Neurrien edukia

- \* Udalaz gaindiko, udaleko eta auzoko zerbitzu-espazioek atsedenerako, hidrataziorako, higienerako eta aterpe hartzeko ekipamenduak eta instalazioak izango dituzte.
- \* Ezarriko diren zerbitzuak/komunak eraikin eta eraikin/ekipamendu publikoetako zerbitzu/komunetarako ezarritako baldintzak beteko dituzte.

Hori dela eta, zerbitzu/komun aurrefabrikatuak ezartzen badira, kanpoko pixatokiak saihestuko dira, higiene-arrazoientatik eta adierazten dutenagatik.

- \* Atsedenekuen eta bankuen kokapena eta non jarrita dauden justifikatuko da, horien orientazioaren eta urteko urtarotetan hartzen duten eguzkiaren ikuspegitik.
- \* Hiri-altzariak ezartzerakoan, gurpil-aulkien eta haurtxoen autoen baldintzatzaileak hartuko dira kontuan.
- \* Iragazkortasuna bermatuko duten espazioak jarriko dira.
- \* Lehentasuna emango zaie trafikotik ahal den neurrian aldentuta egongo diren atsedeneku lasaiei.
- \* Plaza berean espazioak bereiziko dira, eta une berean jarduera-mota desberdinak egitea, eta, aldi berean, topaketa eta denboren bateragarritasuna ahalbidetuko da.
- \* Bidez inguratutako plaza honako elementu hauen bidez babestuko da: banku jarraituak; heskaiak; hormatxoak; bisualki iragazkorak izango diren eta metro batetik beherako altuera izango duten landareak.
- \* Dibertsifikazioa sustatu eta bermatuko da, kolektiboentzako mikro-ekipamenduak jarriz: haur-jolasak; gazteentzako jolasak; adinekoentzako kirol-guneak; eta abar.
- \* Jarduera desberdinen arteko bereizketa aztertu eta diseinatuko da, paseatzeko, aisialdirako, atsedenerako, jolaserako eta bestelakoetarako espazioen arteko gatazkak saihesteko edo minimizatzeke.
- \* Futbol-zelaiak errepikatzea saihestuko da, eta askotariko jarduerak egiteko guneak ezartzea lehenetsiko da. Ahal den neurrian, naturarekin zerikusia duten espazioei lehentasuna emango zaie (edo kirol-kantxa bakoitzeko joko libreko eta azalera naturaleko beste eremu baliokide bat aurreikusiko da).
- \* Parke eta berdegune guztietan mahaiak eta eserlekuak jarriko dira, zaintza-lanak errazteko bada ere. Eserleku edo banku horiek ezartzeko modua bateragarria izango da gurpil-aulkiak eta haurtxoen aulkitxoak jartzearekin edo erabiltzearekin, irisgarritasunaren arloan indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako baldintzetara egokituta.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Azaldutako neurriek, Orioko hiri-eskala eta -baldintzatzaileak kontuan hartuta, honako bi gogoeta-mota hauek justifikatzen dituzte.

Alde batetik, eduki zehatza kontuan hartuta, neurri horiek Oriokoa baino hiri-dimentsio eta -eskala handiagoko udalerrri bati buruzkoak direla esan daiteke.

Horrela, zaila da udalaz gaindiko, udaleko eta auzoko zerbitzuguneak Orioko hiri baldintzatzaileekin bat etortzea.

Bestetik, planteatutako neurrien izaerak, edukiak eta xehetasunek Plan Orokorren berezko zeregina gaintzen dutela pentsatzeko bidea ematen dute, eta, esan daiteke, Urbanizazio Ordenantzei, urbanizazio-obren proiektuei eta bestelakoei dagokiela.

Beste kontu bat da Plan Orokorrean sartzea esku hartzeko beste agertoki horietan horrelako gaiak kontuan hartzea aipatzen duten jarraibideak. Jarraibide horiek Planaren Hirigintza Arau Orokorretako 135. artikuluan eta abarretan sartzen dira.

### 3.3.- Ekonomia-jarduerak.

#### 3.3.1.-*Industria-, merkataritza- eta ekipamendu-lurzatietako lurrazaleko aparkalekuak diseinatzeko neurriak. Segurtasun-neurriak.*

##### A.- Neurrien edukia

- \* Aparkaleku guztiak jarraian aipatzen diren horiekin lotzeko oinezkoentzako ibilbideak identifikatzea/zehaztea: espaloia; oinezkoen eremua; xede-eraikina.
- \* Ibilbide horien zabalera aparkaleku-plazen kopuruaren eta aurreikusitako pertsona-fluxuaren parekoa izango da. Gutxienez, 1,20 m izango du.
- \* Haurrak, adinekoak eta/edo laguntza behar duten pertsonak biltzen diren merkataritza-guneetan eta ekipamenduetan, oinezkoen ibilbideak sarean antolatuko/konfiguratu dira.
- \* Korridore nagusiaren gutxienerako zabalera: 1,50 m.
- \* Bigarren mailako korridoreen gutxienerako zabalera: 1,20 m.
- \* Oinezkoen ibilbideak bide-sareetatik (ibilgailu motordunen trafikoa) babestuko dira honako hauek bidez:
  - 0,50 m-ko heskaiak edo, trafikoa orduko 50 km-ra mugatzen bada, altuagoak.
  - 0,80 m-ko heskaiak edo zolata igota + babes fisikoren bat, baimendutako abiadura orduko 50 km-tik gorakoa bada.
- \* Oinezkoen ibilbideak zola berezi baten edo pintura bidez identifikatu dira.
- \* Oinezkoentzako ibilbideek argiztapen egokia izango dute.
- \* Trafiko-kodean ezarritakoaren arabera, seinale hauek jarri beharko dira:
  - Zirkulazioaren eta irteeren noranzkoak.
  - Zirkulatzeko gehieneko abiadura.
  - Oinezkoen pasaguneak.
- \* Zamalanetako guneak behar bezala seinaleztatuko dira.

##### B.- Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Azaldutako neurriek, Orioko hiri-eskala eta -baldintzatzaileak kontuan hartuta, honako hiru gogoeta-mota hauek justifikatzen dituzte.

Alde batetik, eduki zehatza kontuan hartuta, neurri horiek Oriokoa baino hiri-dimentsio eta -eskala handiagoko udalerrri bati buruzkoak direla esan daiteke.

Hala, Orion ez dago neurri horiek justifikatuko dituen merkataritza-zentrorik edo antzeko ekipamendurik.

Bestetik, planteatutako neurriak edo antzekoak (Orioko eskalara eta baldintzatzaileetara egokituak), hala badagokio, eragindako hirigintza-, industria- eta merkataritza-garapenen berariazko testuinguru indibidualizatuan zehaztu beharko lirateke, horietako bakoitzaren baldintzatzaile eta beharrak kontuan hartuta, eta ez modu orokorrean edo jeneralistan.

Azkenik, badirudi neurri horiek, salbuespen puntualei kalterik egin gabe, mugikortasunagatik, trafikoagatik eta bestelakoengatik justifika daitezkeela, baina ez genero-ikuspegitik.

Arrazoi horiek guztiak batera kontuan hartzeak neurri horiek Plan Orokorrean ez sartzea justifikatzen du.

### 3.3.2.-Bizitegiak ez diren eraikinetan bizikletentzako aparkalekuak diseinatzeko neurriak.

#### A.- Neurrien edukia

- a) Bizitegi-erabilerarako ez diren eraikin berri guztietan bizikletak aparkatzeko gune bat jarriko da, kanpotik eta/edo lurzati pribatutik sartzeko.
- b) Lurzati pribatuan kokatuz gero, bizikletentzako espazio horrek itxia izan beharko du eta babes klimatikoa izan beharko du.
- c) Neurriak:
  - \* Denbora luzez erabiltzeko:
    - Laneko lekuetan: 1/5 enplegatu - langileko.
    - Ikastetxeetan:
      - . 3/10 ikasleko, 9 urtetik gorakoak.
      - . 1/5 enplegatu - langile.
    - Garraio publikoko geltokietan: 1/50 erabiltzaileko.
  - \* Erabilera ertainerako:
    - Merkataritza-guneetan:
      - . 1/150 m<sup>2</sup>-ko salmenta-azalerako.
      - . 1/10 enplegatu - langileko.
    - Liburutegietan: 1/1 irakurketa-ikasketa postuko.
    - Kirol-zentroetan:
      - . 1/5 aurreikusitako erabiltzaileko.
      - . 1/5 enplegatu - langileko.
    - Ospitaleetan:
      - . 1/100 oheko.
      - . 1/5 enplegatu - langileko.
    - Administrazio-zentroetan eta bulego publikoetan: 1/100 m<sup>2</sup>(s)-ko.
    - Aisialdi-zentroetan (zinemak, jatetxeak, tabernak, antzokiak, entzunaretoak, kontzertu-lekuak): 1/20 zentroko plazako.



B.- Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Neurriek honako gai hauek gogoraraztea justifikatzen dute:

- \* Aparkalekuak, une honetan, hainbat xedapenetan araututa daude, honako hauek barne: 123/2012 Dekretua; 2022 ekainaren 28ko Dekretua; 2012ko HAPO.  
Xedapen horien guztien artean ez dago behar bezalako koordinaziorik eta koherentziarik.
- \* HAPO berriak aurreikusten du industria eta hirugarren sektoreko lurzatieta arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenetan (123/2012 Dekretua eta abar) ezarritako estandarra aplikatzea.  
Estandar horren % 70 autoei lotuta dago, eta % 30 bizikletei eta mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuei.

Horrek guztiak arau-esparru nahikoaren aurrean jartzen gaitu, edo, hainbat gairi dagokienez, gehiegizkoaren eta kontraesankorraren aurrean.

Testuinguru horretan aintzat hartuta, A atalean azaldutako neurriak ez dira Plan Orokorrean sartzen, kontuan hartuta neurri horiek ez direla beharrezkoak, eta neurri horiek sartzeak berarekin ekar dezakeela, inolako justifikaziorik gabe, egungo gehiegizko araugintza eta kontraesanak areagotzea.

Gainera, aurrekoari gehitu behar zaio azaldutako datuek (10. koadroa, hori bai, EAERI buruzkoa, Oriori buruzko berariazko beste daturik ezean) ez dutela justifikatzen, printzipioz, bizikletarekin lotutako neurriak genero-ikuspegitik zehaztea. Hala, datu horien arabera, emakumeek bizikleta erabiltzea ez da garrantzi bereziko faktorea testuinguru horretan; are gehiago, gizonek emakumeek baino gehiago erabiltzen dute ibilgailu hori. Hori dela eta, bizikletaren erabilera sustatzea justifikatuta dago ingurumen izaerako arrazoi orokorreatatik, baina ez generoko berariazko arrazoiengatik.

*3.3.3.-Bizitegi-lurzatieta dauden lokalak diseinatzeako neurriak (dendak, bulegoak, hirugarren sektoreko jarduerak eta ekipamenduak).*

A.- Neurrien edukia

Kalera ematen duen lokalaren aurrealde osoa okupatzea saihestuko da, eta gutxienez ehuneko jakin batean utziko da libre.

B.- Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Irakurketa eta ulermen konplexuko neurria da, hainbat interpretazio-mota izan baititzake.

Horrela, aipatutako lokalaren eta/edo lokal hori dagoen eraikuntza-solairuaren eraikingintza- eta eraikuntza-parametroak zehazteko ikuspegitik begiratuta, planteatutako neurrien zehaztapenak Plan Orokorraren zereginetik haratago doa.

Era berean, lokalaren aurrealdean dagoen espazio publikoaren okupazioaren ikuspegitik begiratuta (ostalaritzako terrazak, fruta-erakustokiak edo elikagai-erakustokiak eta abar), horrelako neurriek Plan Orokorraren esku-hartze eremua gainditzen dute, eta, hala badagokio, espazio publikoaren okupazioa arautzen duen udal-ordenantzaren testuinguruan landu behar da.

### 3.4.- Ekipamendu eta eraikin publikoak.

#### 3.4.1.-*Segurtasun- eta babes-neurriak ekipamenduetarako eta eraikin publikoetarako sarbideetan.*

A.- Ekipamendu edo eraikin publikorako sarbide nagusiarekin lotutako segurtasun-neurriak, kanpotik egin daitezkeen erasoekiko.

a) Neurrien edukia

- \* Sarbidea kalera edo espazio publiko ibilienera ematen duen fatxadaren jarriko da, eta kalearen kota berean.
- \* Sarrera fatxadaren planoan jarriko da, justifikatutako salbuespenak alde batera utzi gabe.
- \* Sarbidea argia eta garbia izango da, eta sarbidearen ikuspena bermatuko da.
- \* Sarbidearen ikuspegia zailduko edo eragotziko duten zokoak, izkinak, elementu opakoak eta bestelakoak jartzea saihestuko da.
- \* Eskaileretarako eta igogailurako sarbidea (beheko solairuan) ikusteko modukoa eta argia izango da sarreratik, zokorik edo horiek ikustea zailduko duen bitarteko elementurik gabe.
- \* Sarbideak behar bezalako argiztapena izango du, bai barruan, bai kanpoan.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Neurri horien zehaztasunak Plan Orokorraren zeregina gainditzea dakar, eta, hala badagokio, ekipamenduaren eraikuntza- eta gaikuntza-proiektuari edo urbanizazio-obren proiektuari dagokie.

Gainera, Plan Orokorrak ildo horretan eta jarraibide gisa aurreikusten du ekipamendu-eraikuntzetara sartzeko baldintzak zehazteko ondorioetarako, erreferentziatzen hartu behar direla lurzatiarako eta bizitegi-eraikinetarako ezarritakoak (2022ko ekainaren 28ko Dekretua), bateraezintasuna edo proportzionaltasunik eza justifikatzen duten gaietan (Hirigintza Arau Orokorrerako 134. artikulua).

B.- Ekipamendu edo eraikin publikoaren barruko espazioan (horretarako sarreran) gerta daitezkeen erasoen aurkako segurtasun-neurriak.

a) Neurrien edukia

- \* Ikuspegia zailduko edo eragotziko duten zokoak, izkinak, elementu opakoak eta bestelakoak jartzea saihestuko da.
- \* Behar bezalako argiztapena izango du, bai barruan, bai kanpoan.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Neurri horien zehaztasunak Plan Orokorrearen zeregina gainditzea dakar, eta, hala badagokio, ekipamenduaren eraikuntza- eta gaikuntza-proiektuari edo urbanizazio-obren proiektuari dagokie.

Gainera, Plan Orokorrak ildo horretan eta jarraibide gisa aurreikusten du ekipamendu-eraikuntzetara sartzeko baldintzak zehazteko ondorioetarako, erreferentziazat hartu behar direla lurzatietarako eta bizitegi-eraikinetarako ezarritakoak (2022ko ekainaren 28ko Dekretua), bateraezintasuna edo proportzionaltasunik eza justifikatzen duten gaietan (Hirigintza Arau Orokorretako 134. artikulua).

C.- Ibilgailuen ekipamendu edo eraikin publikorako sarbide nagusitik kanpo dagoen espazioa babesteko neurriak.

a) Neurrien edukia

- \* Kanpoko espazio hori indarrean dauden eta espazio horien segurtasuna bermatzen duten lege-xedapenetan ezarritako neurrietara egokituko da.
- \* Espazio horien konfigurazioak eta tratamenduak, hiri-altzariak bertan jartzeak eta bestelako alderdiek pertsonak trafikoarekiko babestea bermatuko dute: oinezkoa galtzadan sartzea oztopatuz; ibilgailu motordunei gune horretara inguruan dauden oinezkoenentara sartzea eta sarbidea zailduz; ibilgailuen ikuspena bermatuz.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Azaldutako neurriek, Orioko hiri-eskala eta -baldintzatzaileak kontuan hartuta, honako bi gogoeta-mota hauek justifikatzen dituzte.

Alde batetik, eduki zehatza kontuan hartuta, neurri horiek Oriokoa baino hiri-dimentsio eta -eskala handiagoko udalerrri bati buruzkoak direla esan daiteke. Edo udalerrri horretan ez direla beharrezkoak.

Bestetik, beharrezkoak izanez gero, horien zehaztapena Plan Orokorrearen esku-hartze eremuaz haratago dago, eta urbanizazio-obren edo antzekoen proiektuei dagokiela esan dezakegu.

### 3.4.2.-Ekipamendu eta eraikin publikoetako zenbait espazioren funtzionaltasun-neurriak.

#### A.- Ugalketa-lanei loturiko neurriak.

##### a) Neurrien edukia

- \* Barruan eta kanpoan, itxaroteko eta zaintza-lanak egiteko espazio egokiak jarriko dira, honako baldintza hauekin bat etorritz: dimentsio egokia, babestuak, argiztatuak, eserlekudunak.
- \* Bainugelak jarriko dira, ekipamenduaren erabiltzaileak ez diren pertsonak erabili ahal izan ditzaten. Horretarako, sarbidea kanpoaldetik izango dute.

##### b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Ekipamenduen kasuistikak eta aniztasunak, ugalketa-lanekin zerikusia duten balizko neurrien xehetasunarekin batera, Plan Orokorrearen esku-hartze eta erabaki eremutik kanpoko gaien aurrean egotea eragiten dute.

Ekipamendu-mota desberdinen programei dagozkie (eskolakoak, kirolakoak, kulturakoak, osasun-arlokoak...), eta testuinguru eta une honetan zehaztu behar dira.

#### B.- Garapen komunitarioa sustatzeko neurriak.

##### a) Neurrien edukia

Ekipamendu eta eraikin publikoetako sarbideak, ibilbideak eta espazioak edozein pertsonak modu autonomoan erabili ahal izateko moduan gaituko dira.

##### b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Neurri horiek, besteak beste, jarraian azalduko ditugun bi ikuspegietatik abiatuta balioestea justifikatzen dute.

Alde batetik, ekipamendu horien irisgarritasunarekin zerikusia duena. Gai horri dagokionez, eta kontuan hartuta ekipamendu horiek gai horretan indarrean dauden lege-xedapenetara egokitu behar direla, ez da komeni eta ez da beharrezkoa Plan Orokor honetan sartzea xedapen horietan ezarritakoak osatuko dituzten aurreikuspen gehiago.

Bestetik, ekipamendu horien (horietan) segurtasunarekin zerikusia duena. Horri dagokionez, ekipamenduen kasuistikak eta aniztasunak, planteatu beharreko balizko neurrien xehetasunarekin batera, Plan Orokorrearen esku-hartze eta erabaki eremutik kanpoko gaien aurrean egotea eragiten dute. Ekipamendu-mota desberdinen programei dagozkie (eskolakoak, kirolakoak, kulturakoak, osasun-arlokoak...), eta testuinguru eta une honetan zehaztu behar dira.

C.- Ugalketa-lanekin lotura duten aparkaleku-beharrei erantzuteko neurriak.

a) Neurrien edukia

Haurtxoentzako autoak eta antzekoak aparkatzeko guneak jarriko dira, honako baldintza hauen arabera:

- \* Espazio horiek babestuta eta estalita egongo dira.
- \* Gaitu beharreko aparkaleku kopurua Ordenantza hauetan erabilera-modalitate bakoitzerako ezarritako estandarra aplikatuz ateratzen dena baino % 5 handiagoa izango da. Kopuru hori:
  - Laukoiztu egingo da eskola-ekipamenduetan (eskolaurrea eta haur-hezkuntza).
  - Hirukoiztu egingo da ekipamendu sanitarioetan.
  - Bikoiztu egingo da kirol-, eskola- (lehen hezkuntza), gizarte-, kultura-, aisialdi- eta ikuskizun-ekipamenduetan.
- \* Ordenantzak aplikatzeak 2 aparkaleku-plaza baino gutxiagorako edo 20 baino gehiagorako espazioak gaitzea eskatzen badu, udal-zerbitzu teknikoek ezarritakoa beteko da.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Adierazitakoaren ildotik, ekipamenduen kasuistikak eta aniztasunak, eta, hala badagokio, aparkaleku-behar horiei erantzuteko planteatu beharreko balizko neurrien xehetasunek, Plan Orokorrearen esku-hartze eta erabaki eremutik kanpoko gaien aurrean egotera garamatzate.

Ekipamendu-mota desberdinen programei dagozkie (eskolakoak, kirolakoak, kulturakoak, osasun-arlokoak...), eta testuinguru eta une honetan zehaztu behar dira.

D.- Dibertsitate funtzionalarekin eta zaintza-lanekin zerikusia duten aparkaleku-beharrei erantzuteko neurriak.

a) Neurrien edukia

Gurpil-aulkiak, patinete elektrikoak eta bestelakoak aparkatzeko guneak jarriko dira, honako baldintza hauek beteta:

- \* Espazio horiek babestuta eta estalita egongo dira.
- \* Gaitu beharreko aparkaleku kopurua Ordenantza hauetan erabilera-modalitate bakoitzerako ezarritako estandarra aplikatuz ateratzen dena baino % 5 handiagoa izango da. Kopuru hori:
  - Hirukoiztu egingo dira osasun-ekipamenduetan, sorospeneoetan eta erlijiosoetan.
  - Bikoiztu egingo dira gizarte- eta kultura-ekipamenduetan, aisialdikoetan eta ikuskizunetakoetan.

- \* Ordenantzak aplikatzeak 2 aparkaleku-plaza baino gutxiagorako edo 20 baino gehiagorako espazioak gaitzea eskatzen badu, udal-zerbitzu teknikoek ezarritakoa beteko da.
- \* Zaintza-lanei lotutako plazen % 20 bakoitzeko, gutxienez, korrontehartuneak jarriko dira bateriak kargatzeko.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Adierazitakoaren ildotik, ekipamenduen kasuistikak eta aniztasunak, eta, hala badagokio, aparkaleku-behar horiei erantzuteko planteatu beharreko balizko neurrien xehetasunek, Plan Orokorrearen esku-hartze eta erabaki eremutik kanpoko gaien aurrean egotera garamatzate.

Ekipamendu-mota desberdinen programei dagozkie (eskolakoak, kirolakoak, kulturakoak, osasun-arlokoak...), eta testuinguru eta une honetan zehaztu behar dira.

E.- Mugikortasun jasangarria bultzatzeko neurriak.

a) Neurrien edukia

- \* Bizikletak, patineteak eta mugikortasun jasangarriko beste ibilgailu batzuk aparkatzeko guneak jarriko dira.
- \* Bizikletentzat ezarri beharreko aparkaleku-kopurua Ordenantza hauetan erabilera-modalitate bakoitzerako ezarritako estandarra aplikatuz ateratzen dena baino handiagoa izango da. Kopuru hori:
  - Laukoiztu egingo da kirol- eta eskola-ekipamenduetan.
  - Bikoiztu egingo da gizarte- eta kultura-ekipamenduetan, aisialdikoetan, jolasekoetan eta ikuskizunetakoetan.
- \* Ordenantzak aplikatzeak bizikletentzako 5 aparkaleku-plaza baino gutxiagorako edo 100 baino gehiagorako espazioak gaitzea eskatzen badu, udal-zerbitzu teknikoek ezarritakoa beteko da.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Mugikortasun jasangarria, zehazki, bizikleten eta antzeko beste ibilgailu batzuen bidez, sustatzeko neurriak zehaztea justifikatuta dago ingurumen-, mugikortasun- eta bestelako arrazoiengatik.

Era berean, genero-ikuspegitik justifikatuta dago oinezko eta garraio publiko bidezko mugikortasuna bultzatzeko neurriak zehaztea. Baina zaila da arrazoiak hori bizikletara zabaltzea. Horrela, azaldutako datuek (10. koadroa, hori bai, EAERI buruzkoa, Orioren buruzko berariazko beste daturik ezean) ez dute justifikatzen, printzipioz, bizikletarekin lotutako neurriak genero-ikuspegitik zehaztea. Hala, datu horien arabera, emakumeek bizikleta erabiltzea ez da garrantzi bereziko faktorea testuinguru horretan; are gehiago, gizonen emakumeek baino gehiago erabiltzen dute ibilgailu hori. Hori dela eta,

bizikletaren erabilera sustatzea justifikatuta dago ingurumen izaerako arrazoi orokorreatatik, baina ez generoko berariazko arrazoiengatik.

### 3.4.3.-Ekipamendu eta eraikin publikoetako instalazio higieniko-sanitarioen funtzionaltasun-neurriak.

A.- Komunak, garbi-gelak eta kabina publikoak gaitzeko neurriak.

a) Neurrien edukia  
Gutxienez, komuna duten kabinen 1/5ek konketa izango dute.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Planteatutako neurrien eduki zehatza eta xehetasunezkoa Plan Orokorreko esku-hartze eta erabaki eremutik haratago doa, eta Urbanizazio Ordenantzei, urbanizazio obren proiektuei eta abarri dagokie.

B.- Kabinen ekipamendua.

a) Neurrien edukia

- \* Komuna duten kabinek honako hauek edukiko dituzte:
  - Arropa, poltsa eta bestelakoetarako esekitokia (gutxienez).
  - Bi esekitoki ezinduentzako edo zaintzailearentzako lekua duten kabinetan.
- \* Haurtxoak aldatzeko guneak jarriko dira sarreran, kabinen aurrean. Sexuen arabera bereizitako erabilera duten kabinetan, haurtxoak aldatzeko espazioa bietan eta/edo horien atarian jarriko da.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

Planteatutako neurrien eduki zehatza eta xehetasunezkoa Plan Orokorreko esku-hartze eta erabaki eremutik haratago doa, eta Urbanizazio Ordenantzei, urbanizazio obren proiektuei eta abarri dagokie.

### 3.5.- Bizitegi-eraikinak.

#### 3.5.1.-Bizitegi-eraikinetarako sarbideen segurtasun-neurriak.

A.- Karrerapeak, galeriak eta arkupedun espazioak.

a) Neurrien edukia

Karrerapeak eta portxeak baldintza hauetara egokituko dira:

- \* Ahal den neurrian, espazio publikoaren aurrean dauden fatxadetan edo espazio libre horretatik eta/edo haurren jolasguneetatik ikusteko moduan dauden alboko fatxadetan kokatuko dira. Ez dira bigarren mailako kale edo

espazio publikoen aurrean kokatuko, ezta atzeko inguruetan eta zirkulaziorik eta irteerarik gabeko bideetan ere.

- \* Portxeen ikuspena eta/edo ikuspen-kontrola bermatuko da, eta euskarrien (zutabeen...) neurriak eta lerrokadurak zainduko dira, bereziki izkinetan eta elkarguneetan. Zutabeen zabaleraren eta konfigurazioaren ondoriozko puntu itsuak sortzea saihestuko da. Zutabe biribilak eta jantzi gabeak erabiltzea gomendatzen da.
- \* Portxeek argiztapen nahikoa eta egokia izango dute. Gutxienez, indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak beteko ditu.
- \* Lehenetasuna emango zaio atariaren ondoan dauden espazioak komunitatearen harremanetarako espazioetara bideratzeari eta/edo zaintza-lanak egitea errazteari.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

*"Plan Orokorrerako proposamenak"* izeneko dokumentuan bertan adierazten den bezala, 2022ko ekainaren 28ko Dekretua, etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitegien gutxienerako bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen, lehen erreferentetzat eta erreferente nagusitzat hartu behar da, bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren eraikuntza-parametroak, bizigarritasun-parametroak eta bestelakoak zehazteari dagokionez. Horrek ez du eragotziko, hala badagokio, Dekretuko baldintzetako batzuk zorrotzagoak diren beste batzuekin ordezkatzeko, edo baldintza horiek behar bezala osatzea.

Bestalde, Plan Orokorra berariaz aurreikusten du bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak aipatutako dekretu horretan ezarritako baldintzetara egokitzea. Hala adierazten da espresuki Hirigintza Arau Orokorretako 109., 117. eta beste hainbat artikulutan.

Testuinguru horretan, ez da beharrezko edo komenigarri ikusten Dekretuaren baldintzak osatzea, kasu honetan arkupeei, galeriei eta espazio arkupeetuei buruzko beste batzuekin osatzea, bi arrazoi-mota osagarri kontuan hartuta. Alde batetik, Dekretuaren baldintzak nahikoak direlako (itxuraz behintzat). Bestetik, komeni delako, hala badagokio, Dekretuari egokitzapenak edo osagarriak planteatzea, dekretua aplikatuz, eta ez lehenago, ondorioztatzen den esperientziatik edo praktikatik abiatuta, oraindik aplikatu ez denean.

Gainera, zenbait proposamen zehatzek (atariaren ondoko espazioak komunitatearen harremanetarako eta/edo zaintza-lanak egitea erraztera bideratzea lehenestea, kasurako), justifikatu egiten dituzte, genero-ikuspegitik ere, Orioko hiri-ingurune hainbat alderditako berariazko baldintzatzaileetara egokitutako konponbideak, eta ez osotasunean aplikatzeko irtenbide generikoak.

Horri dagokionez, eta adibide gisa, esan behar da genero-arrazoiek justifikatzen dutela hurbiltasuneko ekipamenduak eta zerbitzuak (dendan eta abar) ezartzea



aurrealdea espazio publikoetara ematen duten eraikinetako beheko solairuetan, "VI.2. Beheko solairuetan erabilerak ezartzeko baldintza bereziak" planoan jasotakoaren arabera.

B.- Kokapena eta atarirako sarbidea.

a) Neurrien edukia

Espazio publikora ematen duten bizitegi-eraikinen atarien kokapena irizpide hauei egokituko zaie:

- \* Espazio publikora ematen duten fatxadetan edo espazio publikotik ikusteko moduko alboko fatxadetan egongo dira. Ez dira bigarren mailako kale edo espazio publikoen aurrean egongo, ezta atzeko inguruetan eta zirkulaziorik gabeko bideetan ere.
- \* Sartzen den espazio publikoaren kota berean egongo da.
- \* Fatxada nagusiaren horma-atalean jarriko da, dagozkion eta justifikatutako salbuespenak alde batera utzi gabe.
- \* Erabilera publikoko zortasuna duten karrerapeetan, barrualdekoa hartuko da fatxadatzat, eta ez kanpoko zutabeekin bat datorrena.

b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

"A.b" atalean azaldutako arrazoi berberengatik, 2022ko ekainaren 28ko Dekretuan ezarritako baldintzak egokiak eta nahikoak direla uste da atarien kokapenari eta horietarako sarbideari dagokienez, eta ez da beharrezkotzat jotzen horiek berregokitzea edo osatzea.

C.- Atariaren barrualdea.

a) Neurrien edukia

- \* Atariaren aurrealdea gardena izango da gutxienez azaleraren % 75ean, eta atariaren ikuspena bermatuko da.
- \* Ataria ikustea zailduko duten elementuak eta irtenbideak ezartzea saihestuko da: hormak, zutabeak, zokoak...
- \* Igogailutik ateratzeko puntua eta beheko solairuko atariko eskailera sarreratik ikusi ahal izango dira, eta ez da zirrikiturik edo zokorik egongo haien artean.
- \* Atariak barruko eta kanpoko argiztapena izango du, iraunkorra edo automatikoki piztekoa.
- \* Babes berezia merezi duten eraikinetan eta horien inguruneetan sartzeko hainbat irtenbide gaitzea/baimentzea, betiere dagozkien segurtasun- eta babes-neurrien testuinguruan justifikatzen badira.
- \* Lehendik dauden eraikinen orde ezartzen diren eraikin berriak atariak egokitzeko araubidera egokituko dira, eraikinaren baldintzekiko eta hirigintza-araubidearekiko bateraezintasuna justifikatzen duten kasuetan izan ezik.

## b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

"A.b" atalean azaldutako arrazoi berberengatik, 2022ko ekainaren 28ko Dekretuan ezarritako baldintzak egokiak eta nahikoak direla uste da atariak egokitzeari dagokienez, eta ez da beharrezkotzat jotzen horiek berregokitzea edo osatzea.

## D.- Zirkulaziorako espazio komunak.

## a) Neurrien edukia

- \* Zirkulazio-elementuek (eskailerak eta igogailua) etxeetarako eta horien eranskinetarako (trastelekuak eta aparkalekuak) zuzeneko sarbidea izango dute. Baita eraikinaren lokal edo espazio komunetarako ere.
- \* Etxebizitzetara eta eranskinetara sartzeko korridoreek, banatzaileek eta bestelakoek irisgarriak eta seguruak izan behar dute, zokorik gabe eta segurtasuna bermatuko duten neurriekin.
- \* Eraikinaren barnealdeko igarotze espazioen kokapenak eta zabalera 200 cm x 70 cm x 70 cm-ko prisma gaitzea ahalbidetuko dute.
- \* Zirkulazio-espazioen gutxieneko altuera librea 2,40 m-koa izango da, eta puntu kritikoetan 2,20 m-ra murriztu ahal izango da.

## b) Neurrien lanketa Plan Orokorrean:

"A.b" atalean azaldutako arrazoi berberengatik, 2022ko ekainaren 28ko Dekretuan ezarritako baldintzak egokiak eta nahikoak direla uste da zirkulaziorako espazio komunei dagokienez, eta ez da beharrezkotzat jotzen horiek berregokitzea edo osatzea.

## 3.5.2.-Ibilgailu osagarriak biltegitratzeko lokalak ezartzeko neurriak.

## A.- Neurrien edukia

- \* Planta berriko bizitegi-eraikinek ibilgailu osagarrientzako biltegitratze-lokal/-espazio bat izango dute, segurtasun-baldintza egokietan: gurgil-aulkiak, haurtxoentzako aulkiak, erosketa-orgak eta antzekoak.
- \* Lokal / espazio hori honako funtzionaltasun-baldintza hauetara egokituko da:
  - Atariaren ondoan egongo da eta bertatik zuzeneko sarbidea izango du.
  - Lokalera sartzeko atea atariko aterako ezarritako baldintzetara egokituko da.
  - Lokalaren/espazioaren plaza-kopurua eraikineko gela-kopuruaren berdina edo handiagoa izango da.
- \* Lokal/espazio hori behar bezalako segurtasun- eta gardentasun-baldintzetara egokituko da.
- \* Plaza bakoitzaren neurriak: 2,00 m

## B.- Neurrien lanketa Plan Orokorrean.

Behin eta berriz aipatutako 2022ko ekainaren 28ko Dekretuak bizitegi-eraikinetan honako hauek gaitzea aurreikusten du:

*Bizikletak, haur-aulkiak eta mugikortasun urriko pertsonentzako laguntza-produktuak gordetzeko lokal bat. Berariazko hirigintza-estandarrak betetzeko adinako azalera gordeko da, eta, halakorik ezean, gai izango da, gutxienez, 1,5 bizikleta hartzeko etxebizitza-unitate bakoitzeko, haurtxoentzako aulki bat 10 etxebizitza-unitate bakoitzeko eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzako laguntza-produktu bat 10 etxebizitza-unitate bakoitzeko.*

Testuinguru horretan eta "6.5.1.A.b" atalean azaldutako arrazoi berberengatik, 2022ko ekainaren 28ko Dekretuan ezarritako baldintzak egokiak eta nahikoak direla aipatutako lokala gaitzeari dagokienez, eta ez da beharrezkotzat jotzen horiek berregokitzea edo osatzea.

Aurrekoez gain, honako alderdi hauek ere aintzat hartu beharko dira: Alde batetik, Dekretuan aurreikusitako lokala sestra gainean zein sestra azpian ezar daiteke, Dekretuan ezarritako baldintzetan. Bestetik, Dekretuan aurreikusitako berariazko parametroak (ibilgailuen kopuruari buruzkoak) hirigintza-estandarretan aipatutakoen ordez aplikatu behar dira edo estandar horiek arautuko dituzte.

## 3.5.3.-Bizikletentzako aparkaleku seguruak ezartzeko neurriak.

## A.- Neurrien edukia

- a) Planta berriko bizitegi-eraikinek bizikletak aparkatzeko lokal/espazio bat izango dute.
- b) Lokal / espazio hori honako funtzionaltasun-baldintza hauetara egokituko da:
  - \* Ataritik gertu kokatuko da, gutxi gorabehera kota berean, eta zuzeneko sarbidea izango du kanpotik.
  - \* Kaletik edo espazio publikotik lokalera/espaziora sartzea ibilgailu motordunen inpaktutik babestuta egongo da, eraikuntzako ibilgailu-mota horri dagokion aparkalekukoena barne.
  - \* Eguzkitik eta euritik babesteko elementuak izango ditu.
  - \* Eraikuntzakoak ez diren pertsonak sartzea, lapurretak egitea eta bandalismoa eragotziko eta/edo zailduko dituzten elementuak izango ditu.
  - \* Plaza-kopurua ez da izango eraikineko gela-kopurua baino txikiagoa.
  - \* Plazen % 50, gutxienez, indar edo trebetasun gutxiago duten pertsonen maniobrak errazteko moduan gaituko dira. Eta eskegitako eta altuerako plazetan ez da maniobrarik egin beharko.
  - \* Aparkatzeko elementu finkoak izango ditu, eta bizikletak berak ez du euskarririk edo sostenguririk beharko.
  - \* Honako hauek izango ditu:
    - Sentsoredun argia.
    - Entxufea.

- Ur-hargunea.
- Hustubidea.
- c) Espaziorako edo lokalerako sarbidea espazio publikotik ikusi ahal izango da.
- d) Bestelako neurri batzuk:
  - \* Sarrerako atearen zabalera librea, gutxienez, 90 cm izango da.
  - \* Atearen eta edozein plazaren arteko zirkulazio- eta maniobra-espazioaren gutxieneko zabalera 150 cm izango da.
  - \* Plaza bakoitzaren gutxieneko tamaina: 200 cm x 40 cm.
  - \* Lokalaren gutxieneko altuera:
    - Orokorra: 220 cm.
    - Eskegitako edo altuerako aparkalekuetarako espazioak: 250 cm.

B.- Neurrien lanketa Plan Orokorrean.

"3.5.2.B" atalean azaldutako arrazoi berberengatik, 2022ko ekainaren 28ko Dekretuan ezarritako baldintzak egokiak eta nahikoak direla uste da bizikletentzako aparkalekuei dagokienez. Aurrekoaz gain, honako hauek gehitu behar ditugu:

- \* Aparkalekuak, une honetan, hainbat xedapenetan araututa daude, honako hauek barne: 123/2012 Dekretua; 2022 ekainaren 28ko Dekretua; 2012ko HAPO.  
Xedapen horien guztien artean ez dago behar bezalako koordinaziorik eta koherentziarik.
- \* HAPO berriak bizitegi-erabilerako 1,5 plaza/100 m<sup>2</sup>(s)-ko estandarra ezartzen du, bizitegi-eraikin berrietan aplikatzekoa, lehendik dauden beste batzuk ordeztearen ondoriozkoak barne.  
Estandar horren % 70 autoei lotuta dago, eta % 30 bizikletei eta mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuei.
- \* 2022ko ekainaren 28ko Dekretuak bizikletak, umeentzako aulkiak eta mugikortasun urriko pertsonentzako laguntza-produktuak gordetzeko lokala ezartzeko eta gaitzeko baldintzak zehazten ditu, eta ez da beharrezkoa horiek berriz doitzea edo osatzea.

Horrek guztiak arau-esparru nahikoaren aurrean jartzen gaitu, edo, hainbat gairi dagokienez, gehiegizkoaren eta kontraesankorraren aurrean.

Testuinguru horretan aintzat hartuta, A atalean azaldutako neurriak ez dira Plan Orokorrean sartzen, kontuan hartuta neurri horiek ez direla beharrezkoak, eta neurri horiek sartzeak berarekin ekar dezakeela, inolako justifikaziorik gabe, egungo gehiegizko araugintza eta kontraesanak areagotzea.

Gainera, aurrekoari gehitu behar zaio azaldutako datuek (10. koadroa, hori bai, EAERI buruzkoa, Oriori buruzko berariazko beste daturik ezean) ez dutela justifikatzen, printzipioz, bizikletarekin lotutako neurriak genero-ikuspegitik zehaztea. Hala, datu horien arabera, emakumeek bizikleta erabiltzea ez da garrantzi bereziko faktorea testuinguru horretan; are gehiago, gizonek emakumeek baino gehiago

erabiltzen dute ibilgailu hori. Hori dela eta, bizikletaren erabilera sustatzea justifikatuta dago ingurumen izaerako arrazoi orokorreatatik, baina ez generoko berariazko arrazoiengatik.

#### 3.5.4.-Lokal komunitario bat ezartzeko neurriak.

##### A.- Neurrien edukia

- a) Planta berriko bizitegi-eraikinek lokal komunitario bat izango dute: eraikinaren eta espazio komunen kudeaketa errazteko; harremanetarako espazio atsegin eta erakargarria emateko.
- b) Erkidego bakoitzak du lokalaren berariazko erabilera zehaztuko du: bilerak, jangela, txokoa eta abar.
- c) Lokalaren xedearen arabera funtzionaltasun, bizigarritasun eta bestelako baldintzekin bat etorriko da.

##### B.- Neurrien lanketa Plan Orokorrean.

Behin baino gehiagotan adierazitakoaren ildotik, 2022ko ekainaren 28ko Dekretua, une honetan, erreferente egokia eta nahikoa da bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak ezartzeari eta gaitzeari dagokienez. Azaldutakoaren arabera, une honetan ez dago Dekretu horretako aurreikuspenak egokitzea edo ezartzea justifikatzen duen arrazoirik.

Arrazoi orokor horrek eta ondoren azalduko ditugun berariazkoek justifikatu egiten dute lokal komunitario bat ezartzeko neurria Plan Orokorrean ez sartzea.

Horrela, halako lokal bat ezartzea ez da gure *bizitegi-kulturaren edo -sistemaren* parte. Horrek ez du esan nahi neurri interesgarria ez denik edo izan ez daitekeenik. Nolanahi ere, horrelako neurri batek duen berezitasuna kontuan hartuta, exigentziaren eta araudi orokorraren bidea ez da egokia neurri hori ezartzeko. Horren aurrean, gure *bizitegi-kultura*n hipotetikoki sartuko badugu, aldeztatik banakako eta borondatezko praktikak eta esperientziak egin beharko dira, pixkanaka-pixkanaka finkatzen eta, hala badagokio, orokortzen joango direnak.

Hori dela eta, bizitegi-eraikin batean lokal komunitario bat gaitzeko proposamena, sustatzaileek, jabeek eta/edo bertan bizi direnek borondatez planteatutakoa, inolako eragozpenik gabe baimendu beharko litzateke. Bestelako kontua da haren eskakizun orokorra eta araudia, une honetan justifikatuta ez dagoena.

Donostia, 2022.

Santiago Peñalba

Manu Arruabarrena

Mikel Iriondo



**ERANSKINA:**

Genero-ikuspegia Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean txertatzeko prozesuan landutako dokumentuak.

- 1.- Orioko emakumeen beharren diagnostikoa, 2019ko ekainekoa.
- 2.- Prozesuaren memoria.
- 3.- Plan Orokorrerako proposamenak.

## **1. ERANSKINA**

**Orioko emakumeen beharren diagnostikoa, 2019ko ekainean egina.**



## **2. ERANSKINA**

**Prozesuaren memoria.**

**3. ERANSKINA**  
**Plan Orokorrerako proposamenak.**